

Antonio Maria Labaien

JOKUA EZ DA ERRENTA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (II)*, Antonio Labayen. La
Gran Enciclopedia Vasca, 1977

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=276>

JOKUA EZ DA ERRENTA

Komeria iru ekitalditan

JARDUN-LAGUNAK

MIGEL MARI: Kale-baserritar; apustuzale ta jokalaria.

ANABIXENTA: Migelmariren emazte ta etxeakoandre maratsa.

ESTANIS: Seme nagusi; bañan sasi-ixturiante alper eta jolas-zalea; dotore jantzia.

ELOY: Seme bigarrena: mutil zintzo ta langillea.

ARANTXA: Alaba zarrena, Martinen andregaia.

MIKELE: Alaba gazteena.

JUAN MARTIN: Asteasuko «txikia», korrikalaria.

PANTXO: Amerikanoa; Migel Mariren anaia.

JULI: Neskazarra Anabixentaren lengusua.

JOXE MARI: Mikeleren senargaia.

JOXE TRAPU: Migel Mariren adiskide ta apustu laguna.

KLAUDIO: Napar plaza-gizona, jokalaria. On Nikolas Erriko sekretario, Anabixentaren aidetakoa.

*Gertakizuna Tolosa inguruko
erri batean oraingo aldian.*

I. EKITALDIA

I. AGERRALDIA

Eskaratz zabala, kutxa, alki, saku kupel eta beste zernai puskaz ornitua. Eskuizkerrera ate bana bizi-toki ta ostatu edo dendara daramatenak. Aurrealdian berriz ate nagusia kalera eroso sarturteerak egiteko erakoa.

Illunabarra da.

J. MARTIN ETA ARANTXA

(J. Martin korrikalari itxuran galtza motz eta makutsik eguneroko saioa egin ondoren arnas estuan dago).

ARANTXA: Izerdi patsetan zaude! Atoz, oztu baño lenago, sukaldera; edari zerbait emango dizut. Kafea, salda edo sagardoa.

JUAN MARTIN: Ba dakizu zure anaia detala gobernatzaille eta ez dit ezer edaten uzten «Koka-kola» ez bada. Edariak puztu egiten omen nau-ta. Gosetuxea nago... ori bai...

ARANTXA: Orduan txistor mutur bat prejituta jango dezu, ta gero...

JUAN MARTIN: Baita zera ere! Txerrikia? Koipe gauza galerazia daukat. Urdaizpi gordiña geienaz...

ARANTXA: Arraultz egosiak ere jaki garbia dituzu. Eta egunekoak prexko-prexkoak areago!

JUAN MARTIN: Gibelarentzat kaltegarri ez balira bai!

ARANTXA: Eta orrenbeste nekatuta ezer jateko baime-nik ez?

JUAN MARTIN: Zure anai Estanisi galdegin bear. Aren esanera bai nago. Apustua pasa arte beintzat.

ARANTXA: Gosez ilko zaitue; ta «il da gero salda bero». (*Musin*) Ez ba diozu korrikalari izateari uzten, neronek utziko zaitut.

JUAN MARTIN: Martin Onuzkero biar arte itxoingo dezu. Zu ere! Ez nuke apustua galdu nai, agindutakoa egin ez dedalako. Diru asko jokutzen da, ta apustua, apustu!...

ARANTXA: Naiz gizona bidean lertu!.. Ori da dema! azkenean gure etxea ondatuko diguna.

JUAN MARTIN: Ez orixe! ni ondatuko ba naiz ere, apustua irabazi bear det.

ARANTXA: Bai ta osasuna gal zazu! Zoaz sukaldera edo jarri zazu berogarri zerbait bizkar-gañean (*Zamarra jantzi erazten diola*).

JUAN MARTIN: Ez nago batere otzik. Izardia ere txukatu zait. Emen itxoingo diot Estanisi. Pultsoa artu bear bai dit, eta masaje eta igurtziak egin ere bai. (*Eseriaz*). On aundia egiten dute.

ARANTXA: Orrela ibiltzeak ba al dizu gauza onik? Zera! Au al da bizitzea?

JUAN MARTIN: Ez esan ori maite! (*elkarganatu ta maiteki arpegia laztanduaz*) Obeto biziko gera laister, apustua irabazi ta gero. Ezin galdu det, orduan zu ere galduko zinduket-eta kaixio! Gure amets eta ezkontza!

ARANTXA: Ez da orrenbesterañoko. Ori ez! Nik ez det biotzarekin apusturik egin. Galdu ala irabazi, beti bat zaitut.

JUAN MARTIN: Zu ere ala zera neretzat... «biotza»... baiñan «barea» altxatzen zazait ordea... ezin erabazi izango det apustua. Gureak egin du orduan... (*berriz Arantxaren arpegia leun iku-tuaz*).

ARANTXA: Geldirik zaude... eta ez zazula esan txorakerik. Estanis dator!

JUAN MARTIN: (*Zutik jarririk*) Nere nagusi, erakusle ta ondatzaillea! Beldur diot.

ARANTXA: Ikusten da. Neri baño obeto obeitzen diozu.

II. AGERRALDIA

LENGOAK ETA ESTANIS

ESTANIS: Nai ez ba dezute ere, emen nazute.

ARANTXA: Ori da arratsaldeon emateko era berria.

ESTANIS: Ez naiz agur eta diosalik egitera etorri; onoko oni pultsua artzera baizik (*J. Martini esku-muturra artuaz*)

JUAN MARTIN: Emen nago ba aspaldi zure zai.

ARANTXA: Lenago etorri bear zenduen.

ESTANIS: Bai, orain zurekin goxo-goxo dagola biotza-ren takatekoak gutxitu zaizkio. (*isekaz*)

ARANTXA: Ea nik zuri beste «takateko» bat nunbait ematen dizudan...

ESTANIS: Ez asarratu arrebatxo. (*Juan Martinen esku-muturra utzirik Arantzari*) Ez diot ezer puskatu. Zuretzat uzten dizut oso-osorik.

ARANTXA: Guzion artean ez ba didazute gaxotzen bai.

ESTANIS: Pultsua ez dabilkizu ain ondo. Juan Martin; arnasa ez dezu estutu bear.

JUAN MARTIN: Gaur gorputzaldi onean nengon, eta jipoi ederra eman diot nere buruari.

ESTANIS: Bada lenbaitlen oieratu ta lo egin lasa-lasa...

ARANTXA: Bai, eta zaude ezer jan eta artu gabe...

ESTANIS: Betiko apari laburra. Bikarbonatoa ondoren, eta masaje-igurtziak ematen dizkitzudala, biar txoriak bezela egan eramango dezu apustua, arin arin.

JUAN MARTIN: Pisuz bai arindu naiz poliki, bainan idia adar ta guzi jango nuke. Gosetuxea nago.

ESTANIS: Ez esan berriz! (*azukre koxkor bat sakeletik aterata*) Emaiozu Arantxa, zure eskutik artuta gozoago irudituko bai zaio.

ARANTXA: (*Berak aoan sartzen diola*) Zera! onekin indartuko ditu anka zaiñak.

JUAN MARTIN: Oraintxe zerbaiten bearrean nago. Utsik daukat barrena... gur, gur egiten duela sabelak.

ESTANIS: Baretu arazteko glukosa onena (*beste azukre koskor bat sakeletik atera ta eskeñiaz*) Jan zarrean obeto korri egiten da. Apustua ondoren asetuko zera nai bezela. Eta olinpiar garailleari bezela irabaztean buru gaiñean koroia jarriko dizugu...

JUAN MARTIN: Aski det nere txapelarekin!

ESTANIS: Eta zure andregaiak... beste sariren bat ematen al dizu...

ARANTXA: Bai ta galtzen badu (*Estanisi*) zuri masalleko bat.

ESTANIS: Ni ez naiz sartzen zuen artean... bada ezpada ere.

ARANTXA: Orduan ez ditzazula esan txorakeririk. Juan Martin nekatu da, eta ez zu.

JUAN MARTIN: Ez badakizu ere, ba dut eseritzeko gogorik...

ESTANIS: Orretarako baimena ematen dizut. «Marka» ona egin dezue: 48 minutu 3 segundo ta laurden... Ez dago gaizki zure metabolismuak... ondo erantzun du. Eskerrak artu dituzun «glukosa», «proteina» ta «vitaminai».

ARANTXA: *(asarre)* Bioliña, itz oiek besterik ez zenitun ikasi Zaragozan beterinaiotzan ikasten ibilli ziñanean...

JUAN MARTIN: Jendea datorrela dirudi. Zuen aita eta ote diran...?

ESTANIS: Goazen, goazen barrena. Ez aitatu marka ta pultsuaren konturik. Ez gaitzatela ikusi... aita da, bai...

ARANTXA: Bere «trabesekin» naikoa du. Joxe Trapurekin dator *(Besotik elduaz)* Zu ez oztu orain... *(Bijoaz)*

III. AGERRALDIA

MIGEL MARI TA JOXE TRAPU

(sarturik)

MIGEL MARI: Emen dek, bai Eguneroko saiaketatik itzulia egiten ikusi diat. Arin zetorreke eta marka onak egiten ari dek. Zer berri Nafarro aldetik?

JOXE TRAPU: Ba... (*burua azkureturik*) An berriz «gurea» puskatuko duten erronkak entzun dizkiat. Izan ere ala «mantentzen» ditek Larraungo «Txiki» ori... arentzako diña ez dek: Ez arategi ta ez ollotegirik.

MIGEL MARI: Ori «antigualako» sistema dek. Geiegi jan arazi ta azkenerako «poto». Bestela ezi degu gure mutilla. Nere seme Estanis orretarako «numero uno» baidiagu. «Kus-Kunti» edo ingles eskolakoa.

JOXE TRAPU: Nik eskola gutxi diat. Konporme! baiñan «igualean» ondo jan eta edan egiten duanaren alde jokatu nitek...

MIGEL MARI: Kaiku alena! Korrika egitea arria jasotzea dala uste al dek?

JOXE TRAPU: Konporme! Auldadea ere...

MIGEL MARI: Larraungo «Txiki» ori zer nolako «marka» egiten ari dan jakin bear diagu.

JOXE TRAPU: Egia esan, ez nian errelojurik eraman. Zertarako? Lumeroak ez baidizkiat ondo ezagutzen. Gañera napar koskor on guez zebillek, iñork ikusi ez dezan. Aralarko Artzai batek esan zidanez, salatzen ibillia dana bera, 48 minutu

eskasean egingo omen. Eta artzai ori gau txoria diagu. «Ontza» deitzen ditek ta... pentza!

MIGEL MARI: Ontza? Ontzak dirutan etxeratu bear dizkiagu apustua irabazita. Garbitasun geiago atera ez badek... Nola dabilta «trabesak»?

JOXE TRAPU: Trabesak? bi aldetara! Berrogei ta zaspimintun ezetz, eta berrogei ta zortzitan baietz. Bost amarri «probintzianoa»ren kontra ta antzekoak entzun nizkian naparraren alde.

MIGEL MARI: Guk irabaztera joan bear diagu, bajutik sartuta...

JOXE TRAPU: Gureak apustua galduagatik guk dirua irabazi genezakek.

MIGEL MARI: Ez diagu «tongorik» bear. Badakik nik beti pin jokatu izan dedala.

JOXE TRAPU: Konporme! baiñan «amar ogeiri» artzen badegu gurearen alde ta azken orduan «ogeibosti» beste aldera...

MIGEL MARI: Azken ordurarte zai dagonak purrut egi ten dik geienetan. Gastu aunditan sartu gaituk eta nola edo ala atera bearra zegok.

JOXE TRAPU: Ori erreza da bi aldetatik irabaztera jokatu ezkeru. Plaza-gizona izan bear orretarako.

MIGEL MARI: Nik ez diat beti pagatzaille izan nai. Gureak 46 minutuan egiten badu, apustua irabazia zeukagu.

JOXE TRAPU: Konporme! bañan apustua «baaiz, ta banauk» arteko jokua dek. Naparrak ere zanko bizkorak dizkit eta berdin zamar ibilliko dian zantzua diat. Egun artean gorputzaldi onenean dagonak ark irabaziko.

MIGEL MARI: Nik ezin diat bada dirurik galdu. Gure etxea berriz ere erre kara joango uke. Ta ez diat esan nai nere andre ta seme-alabek nola artuko niñuteken.

JOXE TRAPU: Orduan bi aldetatik irabaztera jarri bear diagu derriorrean. Oraindik garaiz gatxeudek.

MIGEL MARI: Ik ikusi nola jokatu ta zer trabesak egin. Bost milla duro gelditzen zaizkidak.

JOXE TRAPU: Konporme! Utzi neri! Nere kontu! «Araizko» Klaudio or ikusi diat, arestian, eta trabesak egin naiean zebilekan.

MIGEL MARI: Kontuz ibilli arekin! Itzak ondo neurtuaz!... (*kaleruntz begiraturik*) Ara nun datorren bera!

JOXE TRAPU: Utzi neri tratua egiten. Eta isillik ago i.
(*Klaudiori ongi etorria egin naiez*) Kaixio Klaudio
lagun zaarra!

IV. AGERRALDIA

LENGOAK ETA KLAUDIO

KLAUDIO: Ba zaudetela...?

JOXE TRAPU: Egon edo... alatsu... Zu bazabiltzala,
berriz...

KLAUDIO: Ibilli... edo... etorri bearra ba nuen eta...

MIGEL MARI: Guk berriz egon bearra... Zera... (*Joxe
Trapuk keñuz isiltzeko adieraziaz*).

KLAUDIO: Jakiñe! Jakiñe!...

JOXE TRAPU: Jakiña, bai! Konporme! «Larraungo Txikia» apustutik erretiratu ote dan susmurra zabaldua da.

KLAUDIO: Nik baño geiago jakin dakizu. Eranegun ikusi nuen azkenekoz eta ez zidan deus esan olakorik. Lenengoz entzuten dut.

JOXE TRAPU: Ni atzo Lekunberrin nintzan. Andik dator berria: zain tiratua izan zuala. Ta kalanbreakin

badabil, ez nintzake arrituko erretira dedin. Nik beintzat ez nuke aren alde dirurik jokatu.

KLAUDIO: Badira jokatu nai dutenak... eta ni bitarteko!

JOXE TRAPU: Ortan ba zaudete, zuek ikusi!

MIGEL MARI: Ez zazula gizona atzeratu. Griña ori eka-
rri baldin badu...

JOXE TRAPU: Nik obe bearrez esaten diot, aspaldiko lagun zaarrak bagaituzu. Emen dirua, bi bati eskeintzen ari dira probintzianoaren alde. Ortik kontuak atera.

MIGEL MARI: Gure mutilla beñere baño obeto dago bai... Ez du egundaño izan alako sasoirik.

KLAUDIO: Zuen esamesak goiti-beiti. «Larraungo Txikia» ez da gibelean geldituko.

JOXE TRAPU: Probintzianoaren aldean pausua dizu txikia zuen napar orrek!

KLAUDIO: Biziagoa, ordea; ta orrek du balio! Giputz makala baño naiago dut napar bizkorra.

JOXE TRAPU: Bai zainak kalanbrerik gabe irauten badiote ta auspoa lasa. Begira Klaudio! Zere buruaren jabe zaitugu. Naparrok zuen erritararren alde izateak bidezkoa derizkiot, baiñan (*isilpean bezela*) dirua irabazi nai badezu ar itzazu

trabesak probintzianoaren alde... azpitik. Gero sartzen al zera goitik, beste aldera.

KLAUDIO: Bai ta ankaz gora erori eta ipurdiko gaitza artu.

JOXE TRAPU: Ez gizona! Gauza jakiña da. Ez dezu arriskurik bi aldetatik estalirik, kubriturik zaude.

MIGEL MARI: Emen aritu bearrean barren ortan obeto konponduko gera. Goazen!

V. AGERRALDIA

ANABIXENTA TA NIKOLAS

(Etxe barrendik irtenaz)

ANABIXENTA: Zorigaiztoko apustu orrekin gure etxe-koak burua galduta dabilta! Lezoko Santo Kristok gorde gaitzala! Bestela, gure gizonak jokurako duan griña dala-ta, lur jo bear degu berriz ere!

NIKOLAS: Zer nai dezu, apustua egiña dute ta agian irabazi lezateke. Ez alde z aurretik estutu beintzat. Bizitza jokua da ta... Nork daki?

ANABIXENTA: Ez det ezer jakin nai! Lenago senarra bakarrik nun jokalari. Orain semea ere ixturioak utzi ta aitaren bidetik dijoa...

NIKOLAS: Ez dituzu orrelakoak guziak. Eloy gaztea ondo mutil zintzo ta langillea atera zaizu-ta. Amaren antzekoa... esan diteke.

ANABIXENTA: Gizarajoa nere familiaren aldekoa degu Jainkoari eskerrak! bestela...

NIKOLAS: Eta nun uzten dituzu alabak? Arantxa ta Mikela? ezkontzen zaizute agidanean.

ANABIXENTA: Ez zaidazula aitatu Mikelaren konturik.

NIKOLAS: Ez ba dakizu ere orretara nentorren bada; zure baimenaren billa.

ANABIXENTA: Pantxo gure amerikanoarekin ezkondu nai izan ez zuen ezkeror, egin zala gogoak ematen diona. Zuntzun alena. Aitak baimena eman dezaiola.

NIKOLAS: (*Paketsu*) Begira, Anabixenta, buruz argia ta zentzun aundiko andrea zaitugu ta kontuan artu bear dezu Pantxo eta zure alaba Mikelak urte-tan alde aundia dutela -ogeitamar urteko diferentzia- ta gañera okerrago dezuna osaba-illobak.

ANABIXENTA: Ez zaio urteai bakarrik begiratu bear. Ta osaba-illoba dirala ta zer? Elizak olakoak artzen ditunean gaizki egiña ez dan siñale.

NIKOLAS: Ez uste ordea baimena errez eman oi duanik, ez! Gañera alabak beste borondatea erakutsi du ta beste senargai gazteagoa gogoko bazaio...

ANABIXENTA: Bai, gazte txoruarekin biziko da... negarrez. Pamilia guziarentzat askoz ezkontza egokiago gendun bestea... Pantxori asko zor diogu, ta emaztetzat artuko zuala adierazi zion ezkerero, baiezkoa... zegokion gure etxeko bearrak ikusirik.

NIKOLAS: Zer nai dezu? Ezezkoa esan zion ordea, kalabaza! Ta alperrik da gauza berritzea. Biotzak ere bere eskubideak baditu, ta zuen Mikelak ez du neskazar gelditu nai. Ain zuzen ezkontza paperak Erriko etxera eskatu dituzte ta zuen baimena papertxo ontan jarri bearko diozute.

ANABIXENTA: (*bizi*) Aitak eman dezaiola! Nik ez diot gure Pantxori «desprezio» ori egin nai. Guregatik egin duanarekin! Baserria utzita, guzia galdurik kalera etorri giñanean, Pantxori eskerrak burua jaso genduen. Gure gizonak bere idi-

apustu, aari-dema, aizkora joku ta gañerakoe-kin etxea ondatu zigunean amerikanoaren laguntza izan ez balitz zer?... Orain ere bildur naiz aita-semeak ondatuko ote gaituzten. Norengana joko degu laguntza eske?.. (*Malkoa dariola*).

NIKOLAS: Pantxo eskuzabal eta ona dezute ta ez dizute itxiko sakela bearrean arkitzen zeratenean. Ez al dio bada, Eloyri lantegia jartzeko dirutza polita aurreratu?

ANABIXENTA: Ala da bai, zure itzak lasatzen naute.

NIKOLAS: Mikeleren arazoa aaztu zaio... Geiegi ikusten zuen emaztetzako gazteegia zuala. Ala aitortu zidan. Ta bai nik esan ere, ezkontzokotan obe zukeala bere diñako beste andregairen bat... Juli... edo...

ANABIXENTA: Ori esan al zenion? Egitan? Ta zer zerizkion? (*iriparra ageri zaiola*)

NIKOLAS: Ez zuan gaizki artu.

ANABIXENTA: Ez luke damurik izango. Ez orixe! Elkarren modukoak dituzu. Sasoiean daude biak eta Julik ez lioke ezetzik esango. Nik itzegingo nioke. Zuk beste orrenbeste egingo bazenu Pantxorekin...

NIKOLAS: Bai ederki eman ere! Ni mutilzar eta uztar-gille?... Neretzako billatzen jakin ez ta besteren-tzat? Nikolas ez ezik Zelestino deituko nindute-ke.

ANABIXENTA: Zelemon egitea berdin da bai! Gauza da, Pantxo errian, pamili aldean gelditzea; Juli lengusu bait degu, ta orrela gure amerikanoa etxean izango genuke.

NIKOLAS: Laister etortzekoa da ta zirikatuko degu, ea zertan dan.

ANABIXENTA: Julik ere garai ontan agerturen bat egi-ten digu beti. Ezkontza ori antolatuko bagenu nere naigabeak aztuko nituke.

NIKOLAS: Emen dator bera ba; ea zer nolako aldartzea dakarren. Zu isillik ba-ezpada... Keskati dabil aspaldi, ta arretaz artu bear dan gizona degu gure Pantxo... Arantz asko! Kontuz atera bea-rrak!

ANABIXENTA: Ez da lan erreza. Ezaiozula esan nik ezer aitatu dizudanik. Ez nazu ezurdun arrai-zale oietakoa...

NIKOLAS: Emen degu. Utzi neri! (*Etorri berriari*) Kaixio Pantxo!

VI. AGERRALDIA

LENGOAK ETA PANTXO AMERIKANOA

PANTXO: (*Sartuaz*) Arratsaldeon! Biar zer festa degun ezagun da. Ikusi ditut... Betikoak! Jokalari jendea! Droga zaleak.

ANABIXENTA: Ori esan!

NIKOLAS: Zu falta ziñan jokua bizkortzeko.

PANTXO: Trabesaren bat edo beste egiten dizut baiñan ez dut saltsa ortan geiegi sartu nai. Jokuan bero sartzekotan obe da Mar de Plata ko kasinoaren kurpillean... edo Bolsan... ekitea!

ANABIXENTA: (*Ulertzeka*) Polsa? Bai enetxoa! Gure gizonak zuk bezela zainduko balu...

NIKOLAS: Guziok ez berdin izan. Jokutik, ostalari, jate-txe ta tabernariak irabazi ederra ateratzen dezute.

ANABIXENTA: Beste edozein negozio naiago nuke ardo ta edaria saltzea baiño.

PANTXO: Zoritxarrez, zurruta da geiena ematen duana.

NIKOLAS: Olako apustuekin errian diru asko gelditzen da, nere sakelean ez bada ere. Ta noski, Ayuntamentuaren sarrerai, nere «ogibideari», edo «ardobideari» begiratu bear diot Sekretario naitzen aldetik.

ANABIXENTA: Ta sekretario zintzoago ta «urzaleagorik» erriak ez lezakela arkitu; ezagun da gaztetan apaiz-gai izan ziñala...

NIKOLAS: Kontu zarrak dira oiek... nor oroitzen da aldi aietaz? *O tempora, o mores.*

PANTXO: Latiña ez zaizu aztu beñepein. Baiñan errian bear deguna dek lantegi berriren bat sortzea gazte jendeai irabaz bidea emateko... Industria-ri lagundu...

NIKOLAS: Ori «financiero» jendeak: zuek dirudunok egin bear dezute. Erriak erreztasunak emango ditu.

PANTXO: Ni nere txikian zerbait egiten ari naiz. Eloy illobari burnilantegitxo bat jarri diogu.

ANABIXENTA: Ta zuri eskerrak aurrera ateratzen ari da mutilla. Ez da semea dedalako, baiñan langille purrukatua degu, ta ez du joku ta jolaserako astirik.

PANTXO: Gazteai lagundu egin bear zaie...

NIKOLAS: Gu bezela gelditu ez ditezen. Eta garaiz guk egin ez deguna egin dezaten.

ANABIXENTA: Zer ala? Ezkondu edo?...

NIKOLAS: Bai aguro asmatu gure Anabixentak... *(isiltzeko keñu egiñaz)*

PANTXO: Umore onean zaude Nikolas.

NIKOLAS: Zuk baño diru gutxiago baiñan umore geiago; ta oraindik ez det galdu jolaserako gogo. Zer bada, urte batzuek bizkar gañean izanagatik goibel bizi bear al degu? Ez orixe! Nik gazterik gordetzen det biotza.

PANTXO: Oraindik andregairen bat aukeratu bearko dezu.

NIKOLAS: Zure larruan banengo, ez nuke ezetzik esango...

ANABIXENTA: Biok ere gai zaudete; ta mutilzar egosgogorak izanagatik Elizak artuko zaitue...

PANTXO: Aski da... Zorakeriz... Orain arte bakarrik bizitzen etsi degu ta ala jarrai bear aurrerantzean ere...

NIKOLAS: Ba benetan, lagun zarra, emendik aurrera bearko dezu zuk ere andre on bat ondoan, zaindu zaitzan.

PANTXO: Zuretzat ere ez zaizu gaizki etorriko! Ondo ari zera Nikolas, baiñan orain ba det beste buruausterik... Nor gogoratzen da arazo ortaz apustua zeñek irabaziko duan jakin arte? Utzi itzagun emakume kontuak. Gure plaza-gizonak korrikalari burrukaz zer dioten jakin zagun lenengo!

ANABIXENTA: A gizonezko! amaika larrialdi ta negar jarriko dute etxetan. Eta andreak eraman bear guziak sukalde bazterrean.

NIKOLAS: Prakadunok entzun bear ditugu entzutekoak. Gu beti errudun... Belarria berotuko digute berriz ere...

PANTXO: Entzungor edo anka egin bear asarretu aurretik...

ANABIXENTA: Orregatik gelditu ziñezteke; ez naiz ari zuengatik. Gizonezko guziok zuek bezelakoa balira, naiago nuke... etxetik asita... Aita-semeak zaarrena beintzat elkarren berdiñak atera zaizkit. Ez dute burua apusturako besterik.

PANTXO: Berarekin itzegin bear det. Ea trabesa onen batzuek egiten ditudan. Goazen barren ortara.

ANABIXENTA: Ai enetxoa! Jokua ez da errenta.

NIKOLAS: Bizitza jokua da ordea... (*barrendik datorre-
la droga-zaleen apustu ardalla nabaituko da;
eta oiu ta deadarrak; ogei, amarri! Amar bosti
(bijoaz Pantxo ta Nikolas).*

VII. AGERRALDIA

ANABIXENTA TA JULI

*(Anabixenta unetxo batean bakarrik
dago ta urduri batetik bestera ibilliaz).*

ANABIXENTA: Lezoko Santo Kristo maitea! (*Aitaren
egiñik*) Oiu oiek biotza zulatzen didate ta sake-
la ere bai! Zuk ez ezen gurutze ederra dizut
nere senar eta etxeckoekin! Zoritxarreko apus-
tuok!...

JULI: (*Anabixenta ustegabeen sorturik*) Zer gertatzen
zaizu Anabixenta, ondoezik al zaude?

ANABIXENTA: Entzun besterik ez dezu! Atoz, atoi!
Badet zure bearra. Geldi zaitetz pixka batean.

JULI: Pozik geldituko nintzake baiñan oso presaka noa,
ama etxean bakar-bakarrik utzi baidet gajoa!

ANABIXENTA: Aspaldiko andre Joanatxo on puska!
Baduzu noren antza izan! Bizkor al dabil koita-
dua!

JULI: Oso poliki dago, eta ernai, dituen urteetarako. Ez
banaiz laister etxeratzen aguro egingo dit erri-
ta!

ANABIXENTA: Ez du bada berealakoan arkituko zu
bezelako alabarik. Eta gañera ezkongai... gizo-
nezkok ez dakite andreak aukeratzen. Bestela
aspaldian ezkondua bear zenuen...

JULI: Eskerrikasko zure lore-sortarengatik Anabixenta.
Lotzaraziko nazu.

ANABIXENTA: Ori ez da ezer! Beste albiste bat eman
bear dizut...

JULI: Zer? Zer?... Albistea?...

ANABIXENTA: Ez dezu asmatuko nolakoa... Berri oso,
oso ona!

JULI: Ez badidazu esaten, ez.

ANABIXENTA: *(Alde batera ta bestera begiratuaz
ezkutagarri)* Bada... gure Pantxo amerikanoari
arestian, Nikolas ta biok aitatu diogula zera,
ezkontza kontua.

JULI: Ez al zuan Mikelena aski izan? Zergatik ez diozu-
te indianoari pakean uzten.

ANABIXENTA: Utzi bear ez diogulako! Orain izen bat dabil tartean...

JULI: Berak billa dezala nai badu. Onuzkero zer kome-
ni zaion badaki.

ANABIXENTA: Mutilzarrok geienetan zer egiten duten ez dakite! Ta erakutsi egin bear zaie.

JULI: Ori al zenduen berri on ta albistea?... Begira Ana-
bixenta izeba, ama zai egongo zait, luzeiritzirik,
eta urrengo batean kontatuko dizkidazu erriko
ipui guziak. Ezin gelditu niteke. Banoa.

ANABIXENTA: Nik lagunduko zaitut, bidean itzegiñez.
Orrela etxerakoan elizan sartu-atera bat egingo
det.

JULI: Goazen bada. Nik usten nuen biarko festarekin
lanpetuagoa izango ziñala.

ANABIXENTA: Esango dizut guzia. Zaude pixka batean
(*barrengo atetik oiu egiñez*) Arantxa! Kaso egio-
zu dendari! Juliri laguntzera noa! (*dijoazela*).

JULI: Ardalla aundia dezute barren ortan...

ANABIXENTA: Geiegi! Lasago itzegingo degu emendik
kanpora... (*bijoaz*).

VIII. AGERRALDIA

JOXE TRAPU TA KLAUDIO

(Tabernako atetik ateriaz)

JOXE: 49 minutun ezetz! Konporme ba zaude, egiña dago parioa...

KLAUDIO: Nik esan dizut erreloju kontuan ez nazula pio! Gureak irabaziko duala bai!

JOXE: Siñalia botea dago, eta ez du balio orain atzera-tzeak... Esku onetan utzi degu, t'ark esango digu nork irabazi duan...

KLAUDIO: Eguraldia ateri dala, gureak aidean emango du korrika-apustua... garbi gañera!

JOXE: Orduan loia al da gure alde? Ba zikinduta ere irabazi ezkeru berdin zait.

KLAUDIO: Eguraldi txarrarekin apusturik ez egitea obe. Ezin bait da bear bezela pausorik eman. Aurretik doana irristatu diteke...

JOXE: Orretarako jarriak ditugu juezak (*zerura begiraturik*). Gaua ez dago ain illuna. Izar batzuek ere agiri dira.

KLAUDIO: Itsasoko aizea... laister dugu euria. Ez dituzu luzaroan ikusiko izar oiek.

JOXE: Aski det, biarko suerte ona badakarkidate...

AMAR BOSTi Klaudio! Orain dezu garaia! 49 minutuan ezetz zuenak!

KLAUDIO: Naparrak irabazi baietz (*bijoaz*).

IX. AGERRALDIA

ELOY TA MIKELE; GERO ARANTXA

ELOY: Gure ama, elizara zijoan noski, Julirekin. Ez gaitu ikusi.

MIKELE: Naiago det gañera. Onela etxean sartuko naiz bera ez dagola. Osabarekin «zaputza» izan genduen ezkerro alako zera... biotz-ikara egiten zait aurrez aurre arkitzen dedanean. Aitarengatik berriz, ajola gutxi!

ELOY: Jakiña: aitag «mauka» zabalegia duen bezela, amak estuegia. Baiñan biarko apustuarekin nairgabe zaarrak aztu zaizkio. Lenago alaba «kutunak» loa kendu bazion, orain zarrenak ematen dio lana.

MIKELE: Arantxak Zer bada.

ELOY: Korrikalariarekin oso txoratuta dabillelako...

MIKELE: Gustokoa baldin badu, zergatik ez?... Gure amarentzat kutunak semeak zerate. Batik bat Estanis. Onek egiten duan guzia onik artzen du. Ala atera zaio! Gañerakoak eta batik bat alabak ea ez gaitu bere ume... Mutillok nai dezutena egiten dezute, gu berriz aren gonapean txitoak bezela egon bear eta bestela kana bete mutur!...

ELOY: Baita! Baita bota lerdea! Aspaldi lumatu ziñan. Goiz ollanda atera ez baziñan bada. Mikeletxo, Mikeletxo!... Kukurruku ederra jo diguzu osaba amerikanoarekin!...

MIKELE: Isilik egonda ez zuten aditu nai-ta, gauza garbi ezan bear! Osaba ona izan da guretzat, baiñan senargaitzat naiago det nere Joxemari.

ELOY: Nola ez!... orain gure amak etxean sartzen uzten dion ikusi bear...

MIKELE: Baimenarekin edo baimenik gabe, sartuko da ba... Ta gañera aguro ezkontzeko asmoa degu. Ori esatera etorri naiz gaur.

ELOY: Utzi zazu beste egun baterako ez ezen biar apustua da: ta bezperatik ziri orrekin badin bazatoz, zezenak izango ditugu etxean. Ama

negarrez asiko zaizu zerekin bizi bear dezun eta abar!...

MIKELE: Gure lan eta irabazitatik. Nik ez diot ezer eskatuko. Joxe Mari langillea dala badakizu.

ELOY: Gure lantegian txatarra saltzeko emango ziotela esan nion. Eta txanpon politak irabazi ditzazke. Izardirik ateratzeke ta eskuak asko zikindu gabe... ez bada estraperloaren kutsuarekin...

MIKELE: Eskerrikasko, anai! Banekien biotz onekoa ziñala ta zuk amari itz erdi bat esaten badiozu sinistuko dizu (*txantxetan*). Torizu pa potxolo! (*musu emanetz*). Ez nere alde itzegiten diozunean estraperloaren konturik aitatu.... Izen itxuzia da on!

ELOY: Gure amak bere utsegiteak izango ditu, baiñan andre maratz, langille ta saiatuagorik ez dago Goierri osoan. Txanponari balio-arazten diona. Senar, seme-alabentzako etxerako guzia, bere buruari ezer opa ez diona.

MIKELE: Nik ez nuan amarengandik gaizki esan nai (*itun*) Ta ez zaite ain serio mintzatu. Damu det naigabea eman bear izana (*darion malkoa txukatuz*) baiñan ez nuen beste biderik. Zuk ongi

dakizu, anai. (*elkar besarkatuaz*) Lagundu nazu.

ELOY: Bai arrebatxo! Alegiña egingo degu. Eta amak amore emango dizu. Egun txarrak daramazki gajoak eta biarkoa, zorigaiztoko apustua dala ez du izango ohea. Aita beti bezela itxututa ta jokuan leporaño sartuta. Eta Estanis amaren «kuttuna» izanagatik, aitaren antza atera du ta bion artean etxea ondatu bear digute, lengoaz gañera.

MIKELE: Nola ez die galerazten osaba Pantxok? Ainbeste dezakenak? Dirurik ezbalie emango!...

ELOY: Aurrerantzean ez det uste sakela asko askatuko duanik.

MIKELE: Ala baldin bada obe! Alaba ez dago salgai.

ELOY: Alaz guziaz ez da erreza gure aita ezitzen. Ez du eskarmenturik, egosgogorra baida! Ez du onezkeroko iñork bere bidetik aterako. Il arte betiko lepotik burua...

MIKELE: Aita... gaitz erdi, baiñan Estanisek ez du bar-kamenik. Isturiente itxurak egiñaz txautu zizkigun etxeko azken txanponak, beste senideentzako apurrik utzi gabe. Ta orain beti jokuan eta

alperkerian galduko gaitu. Ta amak ez dio beñere itzik esaten.

ELOY: Egia da. Ain dio maitasun itxua... Ez du ikusten, kutunegia du! Biotzbera.

MIKELE: (*Oartuaz*) Kaletik norbait datorrela iruditu zait... Ea bera dan! Goazen barrura ba-ezpada.

ELOY: Ba diteke elizatik itzulia eginda gero, bera izatea (*bijoaz*).

X. AGERRALDIA

PANTXO TA NIKOLAS

(*Sarturik*)

NIKOLAS: Zure anai orrek orain ere apustua sortu du ta ez dakit nola aterako dan. Zor zaarrak ordaindu ezta berriak egiten.

PANTXO: Nik ez dizkiot bada ordainduko. Amaika estuasunetatik atera izan det, baiñan ez nago orain dirua parra, parra botatzeko. Arjentinatik ezin det peso bat ekarri arazi. Emengo diru-paperak ta «baloreak» erre kara doaz.

NIKOLAS: Bai «Bolsa» gaizki dabillela antzematen diot naiz galtzeko ezer gutxiren jabe izan. «Zurraren poltzak bi zulo» esan oi da, nereak zulo bearrik ez, utsa baidago aspaldi

PANTXO: Kezka gutxiago! Beeraldi orrek bete-betean arrapatu nau, beraz ez nago korrika-apustu jokalariai ezer emateko. Eloyri lagunduko diot lanean aurrera atera dedin. Gañerakoak, or konpon! Gauzak orrela badijoaz nik ere beste erabakiren bat artu bearko det.

NIKOLAS: (*Zirikalari*). Ikusia dago, Pantxo. Zuk... ezkondu egin bear zenduke.

PANTXO: Erremedio ederra! nere «sekretario» jauna! Kontseju onak ematen badakizu... bañan bes-tentzat.

NIKOLAS: Ori bai da nere lantegia ta ez nago asarre; ezen orrela bestei kontseju ta onuak eman ez, nere buru ta nere naigabez azturik bizi naiz.

PANTXO: Ez da pilosopi txarra Nikolas. Nola nai, lagun ona izan zaitut beti, ta erriak aolkulari ezin ohea zaitu. Estuasun batean zugana konpianztan joan diteke.

NIKOLAS: Nik ere pozik aundiena bestek nere esana ontzat artzea izaten det... Eta Pantxo... sinistra

zaidazu, lagun zaarrak gera ta... Bakarrik gelditzen ari zera... Ezkondu zaite... Nere ustez Juli komeni zaizu. Orain dezu garaia.

PANTXO: Bein irrixt egin nuen eta ez det erori nai bigarren aldiz...

NIKOLAS: Ura besterik izan zan. Mikele illoba zenduan ta gazteegia... Zer gertatu bear zuan ikusia zegon aurretik... Gaztigatu nizun garaiz...

PANTXO: Zuk erriko gora-bera guziak jakiten baidituzu...

NIKOLAS: Nik ez... «sekretarioa»k...

PANTXO: Bada «sekretario» jauna... jakin zazu nere diru-kontuak Arjentinan gaizki dabiltzala eta guzia esateko, Nikolas..., osasunez ere makal nabillela aspaldi.

NIKOLAS: Orregatik bada artu bear dezu lenbaitlen ezkontzeko erabakia. Badakizu nor dan... Juli. Andregai itxura oneko ta egokia dezu, ezin eta obeto zainduko zaitu ta gañera txanpon batzuek ere baditu.

PANTXO: Ezagun da apaizetarako ikasia zerala. Ori da ni aldarera eramateko gogoia dezuna. Zeregin ori gazteentzako utzi zangun. Ain zuzen... aitatu didazun Mikele ezkontzen dala entzun det...

NIKOLAS: Orrek ez du ezer esan nai. Ezkontza batek bestea ekartzen du.

PANTXO: Zurekin ez dago burutzerik. Bayezkoa eman bearko dizut. Baiñan itxoin zagun apustua zertan geldituko dan ikusi arte...

NIKOLAS: Ezertan ez! Apustu batek beste ekartzen baidu. (*bijoaz*)

XI. AGERRALDIA

MIGEL MARI, ESTANIS ARANTXA
TA ASTEASUKO «TXIKIA».
GERO ELOY ETA MIKELE

(«Txikia» galtza luzeak jantzita, gabardina bizkar gañean duala agertzen da, beste guziak inguratzen dutelarik)

MIGEL MARI: (*«Txikiari»*) Orain zoaz oztu gabe oiera. Gauean bero dagonak biaramonean presko arkitzen da. Ori bear dezu biarko... preskura.

ESTANIS: Aita! Oi biguñean baiño solairu gañean lastai batean etzatea obe du.

ARANTXA: Baita zera ere... zubi azpian ijitoak bezela.

Ez ta etxean oirik ez ba gendu ere!

ESTANIS: Gau batengatik ez zaizu maskalduko baizik gorputzez gogortu.

ARANTXA: Ba-ezpada zuk edredoi pean lo egiten dezu ta al dezun geiena.

MIGEL MARI: Nik txurikin artean berdin egin oi det. Gauza da presko esnatzea, gorputzaldi onean. Begira Martin (*Txikiaren sorbalda gañean eskua jarriaz*). Azken kontzejua eman bear dizut: lasa korri zazu, batere estutu gabe. Bidean txaloak jotzen badizkitzute ere, ez arrotu! Segi zere pausoan azken arte. Ordun ekin! jo ta pasa kontrarioa atzeratuxea baldin bazoaz. Eta aurrea artu badezu ere ekin gogor atzera begiratze-ka...

ESTANIS: Aita! Lenengo «teknika» teknika bear da. Arnasa ondo artu, besoak neurritz erabilli, burua gora, bularra atzera, biotza...

MIGEL MARI: Birikak presko, ipurdia gora.

ARANTXA: Ez al dezute geiago esan bearrik? Pakean utziko bazenuteke!...

ASTEASU TXIKIA: Esan dezatela nai dutena. Orain: entzuteko nago, ta biar apustua irabazteko. Ortan dago gauza.

MIGEL MARI: Ba-ezpada eman itzak iru ontzako txokolate sakelean. Auldadea edo plakia nabaitu ezkerre, erdi bat janarekin bereala bizkortuko aiz.

ESTANIS: Bai egarria sortu ere. Ezetz gizona! Glukosa askozaz ohea du... ta nik eman diodan beste «Botika» suspergarri ura.

ARANTXA: Bai! nik daukat gordeta, baiñan ori ez zaio iñori esan bear eta ez du iñork jakin bear... zuk besterik ez!.. (*Belarrira*) droga.

ASTEASU TXIKIA: Zuk emana ezin gauza txarrik izan... «droga» dalako ori.

MIGEL MARI: «Drona»... iru letrako edaria...

ESTANIS: Ez da edaria, aita, autsa baizik... artu ezkerre arrigarria; bi ala gizona indartzen duana... Isilka erosten dana...

MIGEL MARI: Orrelako bat bear genduen, ez ezen nai eta nai ez apustua irabazi bear degu. Bestela gureak egin du.

ARANTXA: Ona nun datozen palta ziranak... ea famili guzia. Eloy ta Mikele...

ESTANIS: Ez geiegi itzegin auen aurrean.

XII. AGERRALDIA

LENGOAK ELOY ETA MIKELE

ELOY: Oso isilik zaudete! Zer gertatzen da?

ARANTXA: Mikele ikusita arrituta gelditu bait gera.
(*Mikele besarkatuaz*) Ez niñan uste etortzekoa intzananik.

MIKELE: Zer bada (*guziai*) Biarko eguna ajola aundi-koa bait da Bengoetxetarrentzako! Ez det ukatzen nere jatorria ta agertu egin nazaizue.

MIGEL MARI: Senide geienak bildu gera bai, Amerikan daudenak ez ezik... (*arro*) Ba dago oraindik indarra gure etxean...

ELOY: Ez alperrik galdu ezkerro bai...

ESTANIS: Alper itz ori neregatik esan al dek? (*asarre antzean*)

ELOY: Ez iregatik ta ez beste iñorengatik... Guzien obe bearrez baizik.

MIKELE: Etxera etorritakoan ez asarretu beintzat.

ARANTXA: Ori esan! Etxean bizi geranok gaituzue beti pagatzaille... eta biarko apustua ez galdu arazi, animoa kendurik.

ASTEASU TXIKIA: Nik alegiña egingo det beintzat.

ESTANIS: Nai litzake; ama ere emen degu. Zer ote dio?

MIGEL MARI: Apustua irabazten degula egun aundia izango da guretzat. «Bengoetxea»k berriz burua altxako du.

XIII. AGERRALDIA

LENGOAK ETA ANABIXENTA

ANABIXENTA: (*Sarturik*) Ez dakit biar zer gertatu bear dan bañan buruko min aundia ekarri bear digun beldur naiz.

ARANTXA: Ama! Beti il kanpaia jotzen ari bear al du?... Seme-alaba guziak etxera bildu diran ezkerro pozik egon bear luke.

ELOY: Ala da bai, ama.

MIKELE: (*bere buruagatik*) Ardi galdu auxe ere etorri zaio. (*besarkatuaz*)

ESTANIS: Orretzek ez du bear bada geiegi poztuko.

MIGEL MARI: Gure etxeoandrea ez da pestazalea. Elizkizunetara besterik ez zaigu joaten gustora ta kontentu...

ANABIXENTA: Andik nator bada, ta zuengatik erregutzen izan naiz. Kezka aundia baidaukat sarturik, apustua dala-ta.

ARANTXA: Utzi bitza asmo txarrak, ama! Biar errian jende asko bilduko da, lana egingo degu ta irabazia etxerako geldituko zaigu.

MIKELE: Nik ere lagunduko zaituet.

MIGEL MARI: Lagundu? Bai, bai! Lanak ez nau sekulan ikaratu izan.

ESTANIS: Ez ni ere! Zer da ba?

ELOY: Ez, besteren lanak ez du iñor ikarutzen.

ANABIXENTA: Ori da gutxiena... lana... bearko egin, baiñan apustuarena besterik da. Zoritxarreko joku orrek naiz bigar irabazi, etsi galdu egingo gaitu.

ARANTXA: Biarkoa irabaziko degu beintzat. Ez da ala? Ez dio bada irabaziko napar koskor bati.

ASTEASU TXIKIA: Asmo ortan gaituzu. Esan oi dan bezela: «I baaiz, ni banauk» Ta ura aña banaiz eguzkiaren azpian!

MIKELE: Orduan lasatu bedi ama! Alai beza arpegi eder ori! (*Anabixentak zingurin ta asperen egi-ñez aii!*)

MIGEL MARI: Zuen amak beti illun ikusten du guzia, lañopean.

ANABIXENTA: Baditeke nik gauzak illun ikustea baiñan ez nabilkizue begi itxutan. Ondo irikiak dauzkat, gure etxea bide zuzenetik eramatearren.

MIGEL MARI: Bide zuzenean jatekorik arkitzen ez danean, okerrekotik saia bear, biziko bagera.

ELOY: Senar-emazteak ez zerate asarretuko seme-alaben aurrean, erakusbide txarra litzake guretzat.

ANABIXENTA: Bai, arrazoi dezu seme. Ez noa geiago itzik esatera. Jainkoak bere eskutik gaitzala. (*Mikeleri*) Zer berri Donosti aldean? Betiko etxean jarraitzen al dezu?

MIKELE: Bai, ama antxe nago baiñan ez luzaroko...

ELOY: Berri pozgarri bat eman bear digu Mikelek...

ARANTXA: Zeñen isilik intzanan...

ESTANIS: Itzegin dezala, itzegin!

MIGEL MARI: Badira guzian aurrean esan ez ditezken isil kontuak.

ANABIXENTA: Etxera sartu gaitezen, lan egin bearra degu. Aparia prestatzeko daukat oraindik... Eta

atarian esan kontuak aguro zabaltzen dira auzora. Apustu ori ez balitz..!

MIKELE: Ni ez naiz etorri apustuarengatik.

MIGEL MARI: *(Emazteari)* Apustu egingo nuke zertara... ta alabak irabazi bayetz! Anabixenta. Gazte oiekin ez dago burutzerik!

ANABIXENTA: Biarko kezka, bat ezik bi ere sartuak dauzkat kolkoan... Ai ene! Lezoko Santo Kristo maitea... *(Txorabio antzekoa egiten zaio ta alabek besotik eltzen diote OIALA astiro erortzen dan bitartean)*

II. EKITALDIA

I. AGERRALDIA

(Lenengo ekitaldiko antzez-leku bera. Utsik agertzen da, baiñan apustu-zaleen ardallaz beterik. Besteen artean Joxe Trapu, Migel Mari ta Klaudioren abotsak entzun bitez:)

AMAR OGEIRI! NAPARRAREN alde! BOST ATERA EZETZ! 45ean egin baietz! PROBINTZIANUAK EZETZ! *(onelako eta antzeko oiu eta deadarrak, gero eta urrutiago entzungo diranak azkenik isildu arte).*

II. AGERRALDIA

ANABIXENTA TA JULI

(Barrendik sarturik)

ANABIXENTA: (*Gogaiturik*) Beingoan isilduko al dira!

Oso arro joan zaizkigu gure gizonak, baiñan ez jakin nola izango duten itzulia. Zoritzarreko apustuok! Ez dute eskarmenturik, eta susmo txarra ematen diot gaurkoari.

JULI: Kontuak aterako zituzten, ez dituzu buruz ain motelak eta iñoiz irabazten badakite. Ez zaite jarri, aldez aurretik. orrela, ezari emana.

ANABIXENTA: Begira Juli, egi-egitan esaten dizut! Naiago nuke galduko balute. Ea betiko etsitzen duten eta jokurako griña txar ori utzi. Apustutik ez bait dator gauza onik.

JULI: Gaurkoa onuzkero onik bukatu dezatela. Ala eskatu diot Jainkoari mezetan, konbeni bazaigu.

ANABIXENTA: Bai nik ere, noski, baiñan... (*zinkuriñez*) Pasea balego! Ez dakit ez dakit!.. Bitartean aztutzeko edo, beste gure arazoaz jardun gaitetzan Juli. Kezka batek bestea burutik kendu oi du-ta (*Juliri isil kontuan bezela*) Gure amerikanoak zer asmo ote ditu? Ezkondu ala ez, jakin bear degu....

JULI: Orrena ikusia degu, Anabixenta. Ezkontzekotan, gaztea nai du... Ogeitabost urtetik beerakoa obe. Ez ni bezelakoa...

ANABIXENTA: Ondo eman ere! Bera ez da gaur goizekoa! Zenbat urte dituen aztu al zaio ala? Agure alena ez bestena! Ez kontuan erori nai nexka zoro bat ez, baño ondo zaindu ta gobernauko duan zentzuzko etxekoandre bat bear duala... Azken egunetan maskaldu zamarra arkitu det. Gazteak, esku bete lan emango lioke.

JULI: Mikeleren atzetik ibilli zan, eta gañerakoak ez gaitu gogozko. Ta zure alaba zarra ni baño gazteago dalarik.

ANABIXENTA: Laister ogeitamar urte... Ta zer gertatu dan badakizu. Pantxo gizarajoak uste izan zuen osaba amerikano aberatsa zalako Mikelek baietz esango ziona. Ta ustea ustel irten zaio.

JULI: Bada neskatxa on askoren aukera emen inguruan. Edade guzitakoak gañera. Norbaitek baiezkoa emango dio.

ANABIXENTA: Zu zaitu egokiena, Juli. Aspaldiko adiskide ta ezagunak zerate, ta norekin izan diteke zurekin baño obeto? Iñorekin ez! Urtetan ere elkarren modukoak. Amabost urteko aldia besterik ez dezute.

JULI: Baita amasei ere!

ANABIXENTA: Ainbat zure alde!.. Ez du zu añako emazte ta lagunik arkituko, etxekoandre zintzo, txanponai begiratu ta osasuna zainduko diona.

JULI: Orain arte, ainbeste urtetan erabakitzeke beta izan du, ta aintzakotzat artu ez naunean...

ANABIXENTA: Bertan dagoana, ezaunegia ez da estimatzen. Gizonezkoak itxu ta arroak bait dira. Beti gazte eta sendo iraungo dutena ta bat-batean sasoia galdu ta ezertarako ez dirala kon-turutzen dira.

JULI: Gauza ona eskeñi nai didazu orduan.

ANABIXENTA: Ez! Ez! Pantxo oraindik bizkor eta itxurakoa dagola esan bear da... Eta zure eskuetan beste tankera bat artuko luke; ta bai txukunago ta alaigo bizi ere. Zu berriz gustagarri zaude...

JULI: Eskerrikasko! Orain nere txanda al da?... Lore ta guzi!

ANABIXENTA: Bai, bai Juli! Ama ez dezu betiko; ta ilko zaizunean bakar, bakarra geldituko bait zera.

JULI: Eta zuk guzia antolatu nai dezu aldez aurretik... garaia irixtean pentsatuko degu...

ANABIXENTA: Pentsatu?.. Al dan gutxiena! Ezkontze-ko, apaizaren galderari «bai!» ezatea aski dezu.

Kito! Gure amerikanokikoa egingo degu. Nikolas lagun aundia du, ta ezin bitarteko oberik.

JULI: Zeorri ere ez zaitugu makala. Ez dezu iñoren bearrik.

ANABIXENTA: Auzorako nazu ona, baiñan etxean iñork kasu gutxi egiten dit. Seme-alabai alperrik da ezer esatea. Berea egingo dute beti. Norbait etxean gelditzeko esan nioten, baiñan ikusten dezu, guziak apustura joan zaizkit.

JULI: Ez naiz batere arritzen. Gazteak beti gazte. Alako korrikajoku sonatua izaki-ta, nola etxean gelditu?

ANABIXENTA: Alaba bat bederen! Etxean degun lanarekin!

JULI: Gero ere egingo dituzute... (*kaleruntz begiratuaz*) Norbait badatorkizula dirudi.

ANABIXENTA: Apustura joan ez dan norbait.... Arritzekoa da... Errian beste gizona zkorik bai ote da?

JULI: Zera! (*datorrena ezagutuaz*) On Nikolas degu-ta!

ANABIXENTA: Uste ez genduen... ta komeni zaiguna. Bakarrik gañera. Ori bear genduen. Gure kontura artuta, atera bear dizkiogu ateratzeko guziak.

JULI: Ez dezaiogun damu arazi apustura ez joana.

III. AGERRALDIA

LENGOAK ETA NIKOLAS

NIKOLAS: (*sartuaz*) Arratsalde on bioi, etxekoak!

JULI: Baita zuri ere!

ANABIXENTA: Ongi etorri gure etxera, iñor gutxi gelditu gera-ta.

NIKOLAS: Zer nai dezu! Ezin egon apustura joan gabe.

ANABIXENTA: Gureai beintzat ez zaie olakotan etxea gañera eroriko. Nun da nere gogoan da nere zangoa, anka egin didate guziak, zar ta gazte.

NIKOLAS: Jendeak jendea billa oi du. Plaza gañezka beterik dago. Anditxetik nator. Jendearen emana! Zer da ura!

JULI: Neri ere orrela iruditu zait, azkenengo apustuan baño jende geiago dala.

ANABIXENTA: Ez zan bukatuko oraindik?...

NIKOLAS: Bai zera! Asi ere berandu egin bait dira. Azken orduan beti eragozpenen bat sortzen bait da-ta.

ANABIXENTA: Jesus milla bider! Au kezka! Larritzen asia naiz! Zeñek irabaziko duala derizkiotzu?

NIKOLAS: Ez dakit bada. Ni andik pasa naizenean dirua gurearen alde zegon. Ogei amarri oiuka ari ziran.

ANABIXENTA: Ez dakit nola duten barrena dirua orrela jokatzeko. Lanean txanpona irabaztea kostatzen danarekin, eta galtzeko zorian arriskatu... Gogoratze utsak gaxotzen nau.

NIKOLAS: Ez bait zera jatorriz jokalaria, goierritar zintzo baizik.

JULI: Orretarako ere jaio egin bear da. Berez bear asteasuarra.

ANABIXENTA: Gure etxekok ondo jaio ta bataiatuak «dare». Aitaren beinkapena dute. Lasa eongo dira eongo diranez! Ni emen urduriago aiek plazan baño. Galtzen badute kontuak! (*begitik darion malkoa txukatuaz*).

NIKOLAS: Begira Anabixenta, ez zere burua estutu. Zure iritzia esan diezu, ta Jainkoaren eskuetan omen dago guzia. Apustuan, zernai gertatu ere, dirua galtzen da, okerragoa litzake osasuna galtzea.

JULI: Orixe bera esaten diot. Tira Anabixenta! Ez beti kezketan alperrik naigabetu. On Nikolasek berri onen bat ekarriko digu noski...

NIKOLAS: Ez badakizute ere alaxe da, bada. Beste zer-bait pozgarrigoaz mintza nai nitzaizuen, baka-rik gauden eta astia degun ezkerero.

ANABIXENTA: *(Bat-batean alaiturik)* Antzematen diot zertaz dan. Eseri zaite eser. On Nikolas, patxaran jardun dezagun. *(An inguruan dagon silla bat eskeñiaz).*

NIKOLAS: Ni eseri ta zuek ez?... Ondo eman ere! Ez da giza-legea zuek zutik zaudeten bitartean.

ANABIXENTA: Pinkerietan asi zaigu gure «galaia» ta zuk bederen bere aldamenean jarri bearko dezu. *(Beste silla bat bertaratuaz).*

JULI: Zuk agintzen dezun ezkerero, bearko obeditu... *(Eseriaz).*

NIKOLAS: *(Anabixentari)* Etxekoandrea zutik gelditzea ez dago ondo.

ANABIXENTA: Etxekoandrea naizelako baditut bada nere eginbearrak eta aurren-aurrena *(Nikolasi)* zuri kopatxo bat eskeintzea. *(Aldamenenera billa dualarik).*

NIKOLAS: Eskerrikasko, ez zazula nekerik artu. Ezer edan gabe obeto nago.

ANABIXENTA: *(Koñak bonbilla batetik kopatxo bat betea bandejan ekarriaz).* Tira! Eztarria bustita obeki esango dizkiguzu zure albistiak.

NIKOLAS: Estimatzegatik edan zagun bada. *(Zurrut egiñez).* Ez nuen onen bearrik baiñan, nere argalkeriak baditut, ta zuek ezagutu...

JULI: Errezago itzegin dezazun, iñor etorri aurretik.

NIKOLAS: Zertaz mintza nai nizuen ere burutik joan zait. *(Itxurati bekokia beatzaz ikutuaz)* A bai! Pantxo gure amerikanoaz jardun genuen.

ANABIXENTA: *(Arretaz)* Ori, ori! Ortan ari giñan Juli ta biok.

NIKOLAS: Bada nerekiko, ezkondu bearrean dagola nago. Bein gaizki irten bazaio asmoa beste nun-bait arki lezake dagokiona... beste laranja erdia.

ANABIXENTA: Aspaldi esaten ari natzaio, gauza bera. Ta gure Mikelekin gertautakoa ezkerro geiago.

JULI: Geiegi esatea okerrago izan oi da. Zer egin bear duan badaki.

ANABIXENTA: Olakoak zirikatu egin bear dira idi mantsoak bezela... Akulluarekin! Akulluarekin!

NIKOLAS: (*Parrez*) Ez gaude apustuan Anabixenta.

Berak itzegingo dio noski baiñan gai ortan sartu geran ezkerro, konpiantza osoan ta isillik gordezten jakingo dezutelakoan, esango dizuet, eta batik bat zuri... Juli, Pantxok andregaitzat pozik artuko zinduzkela...

JULI: (*Axanpa ta aspamentu egiñez*) Ene! Garai onean! Ikusiko litzake!.. Ondo nago nagon beze-la!

ANABIXENTA: Kosta zaio erabakitzea!

JULI: Guk beti itxoin bearra... azken arte.

NIKOLAS: Azken itza ordea, zuena izaten da.

ANABIXENTA: Ezetz esango diozula ondo bait daki...

NIKOLAS: Batzuetan batzuetan. Iñoiz gerta oi dira ustegabeak.

JULI: Aspaldi daki nere berri.

NIKOLAS: Adiskide zaarrak zerate eta elkar ezagutzen dezute eta oiek dituzue zorionaren giltzak...

ANABIXENTA: Giltzak, maratilla ta krisketa,... Amerikanoak azkenik txoko ona billatuko du, etxe ta guzi... Ta geiago balio duana andregai maratz ta gustagarria, barruan esku-utsik ez dagoana...

JULI: Lotsa araziko nazu! Urrutiko intxaurrak!!

NIKOLAS: Bertakoak! Bertakoak! Egia besterik ez du
esan Anabixentak.

ANABIXENTA: Or ez zan artobero usairik...

NIKOLAS: Zuk, jakiña, ageri jarri nai dezu ezkutuan
dagon pitxia, itsuak ikusi dezaten. Edan zagun
lenbailen ala gerta dedin, *(kopatxoa ustuz)*.
Zuen osasunera! *(Andre biai keñu egiñez!)*.

JULI: *(Nikolasi)* Eskerrikasko! On deizula zuri ere!

ANABIXENTA: *(Berriz kopatxua beterik)* Zure gibela
nai nuke nik...

NIKOLAS: Gaxo zamar ote daukadan bada... medikuak
dionez... «zirrosis»... edo...

ANABIXENTA: Izenaren itxusia!

JULI: Ori errez sendatzen da ur utsa edanez.

NIKOLAS: Julik medikuntzan ere ba daki...

ANABIXENTA: Nik jakin nai nukeana zera da... apustua
zertan ote dan...

NIKOLAS: Gauza erreza emakumea. Radioz ematen
ari dira ta bereala entzungo degu. *(Barrura sar-
tuaz radio tresna piztu ta itzultzen da. Bat
batean radio-otsak txistu ta ardalla nabaituko
dira magnetofono bitartez artu eta entzun arazi
ditekena)*

Emen Radio Donostia: Entzun! Korrika apustua-
ren berri ematen ari gaituzue...! (*Tartean ots
eta jendearen oiu txistu ta deadarrak*) Entzun
apustua azkenekotan da! (*Nikolas eta batik bi
Juli ta Anabixentak urduri entzuten dute alkarrri
begiratuaz*).

JULI: Au da zalantza!

(*Radioz berriz*) Nork irabaziko duan ikusia
dago... Jendetza plaza ustutzen asia da. «Txi-
kia»... gero ta aurrerago doa... (*Ots eta ardallak
ez dute ondo aditzen uzten*).

ANABIXENTA: Jesus milla bider: Nungo txikia esan
du?.. isilduarazi zazu tresna ori, Nikolas.

JULI: Gero ere esango digute bai, nork irabazi duan...

NIKOLAS: Itzaliko det bada... Obe, gaizki entzutea
baño... (*Berriz barrura sartuaz isildu araziaz*).

JULI: Jendea datorrela dirudi... (*kaleruntz begiraturik*)

NIKOLAS: (*saturik*) Apustua bukatzen ari dala badaki-
gu.

ANABIXENTA: Bai baiñan... (*kaleruntz begiratuta dato-
zenak ezagutzean*). Mikele ta dira! Bukatu
aurretik datozenean ez da gauza onik! (*Estu la
larri*)

JULI: (*Baretu naiez*) Zaudelasa. Laister esango dizute... Galduta ere zer?...

ANABIXENTA: Zera! Mixeri gorria! (*Malkoa dariola*).

NIKOLAS: Gora biotz ori Anabixenta. Alaitu zaite, jende gaztea datorkigu ta...

JULI: Mikele bere adiskidearekin. A zer nolako bikote dotorea...

IV. AGERRALDIA

LENGOAK MIKELE TA JOXE MARI

MIKELE: (*Sarturik*) Arratsalde on! Ama ta konpañia!...

JOXE MARI: Zer modu? (*Guziok arpegi goibel agertuaz*) Ola (*agur eta abar eskua emanaz*).

ANABIXENTA: Ba al zatozte?...

MIKELE: Bai ba, errian ez zan geldituko zuek besterik apustura joan gabe danik.

ANABIXENTA: Norbaitzuek geldi bear, etxea zaindu ta lanak egiten... Eta ez det ezer jakin nai...

MIKELE: Ordu erdi bateko kontua guzia.

NIKOLAS: Zertan joan da ba apustua?..

MIKELE: (*apalkiro*) Aurretik dijoa naparra...

JOXE MARI: *(Berri txarra arindu nairik)* Baiñan oso alde gutxi...

JULI: Buelta asko falta al zituzten zuek atera zerate-nean?...

JOXE MARI: Bira pare bat edo...

NIKOLAS: Orduan bukatua dute apustua.

ANABIXENTA: *(larri)* Bukatua ta galdua! Ai ene! *(nairigabeak eman da sillan eseriaz)* Esaten nuan...

MIKELE: *(Amarengana urbildu ta laztanduaz)* Ez orrela jarri amatxo! Apustua probintzianoak galduagatik, gure gizonak trabesak irabazi izan litzateke.

JULI: *(au ere Anabixentaren alboan adoretu naiez)* Jakiña! Mikelek arrazoi du *(Bitartean bazter batean Nikolas eta Joxe Mari berekiko jardunean ariko dira)*

ANABIXENTA: *(Arnasa artuaz)* Ai ene! Bukau barik etorri zeratenean susmo txarra artu diot...

MIKELE: Azken aldera zalaparta aundia izaten da-ta lentxeago atera gera.

ANABIXENTA: Ez gurea aurretik joan izan balitz! Barruak esaten zidan bai, au korapillua nabaitzen nun estomau zuloan...

JULI: Laister jendea etortzen asiko da, ta sukaldean eserita obeto egongo zera. Zerbait berok on egingo dizu.

MIKELE: Bai ama! Goazemazu! Manzanilla egingo diot anisetea bizigarri erantziaz.

JULI: Alaxen da. Tira Anabixenta! (*Juli ta Mikelek besotik elduta daramakitela*).

ANABIXENTA: Zer gertau bear zun ikusia zegon... Galduak gaituzu! Etxea berriz lur jota... (*bijoaz*).

NIKOLAS: (*Joxe Mariri*) Azkar ez badu usaindu ba... Ona da bera!

JOXE MARI: Nik ere uste det, naparra geiago dala oraingo...

NIKOLAS: Edozeñek daki. Eztabaida oietan ez det sartu nai izaten ta goazen gu ere barrura apustu zaleak etorri aurretik. Izango da emen aradilla!

JOXE MARI: Nik ere, nere andregaiari jarraitu bearko diot. (*Bijoaz*).

NIKOLAS: Egun ederra, amagiarrebari alabaren eskua eskatzeko.

V. AGERRALDIA

PANTXO AMERIKANOA ETA ELOY

ELOY: (*Sarturik*) Osaba, obe degu azkeneraño gelditu ez geran. Zertarako? Apustua galdua zegon, eta ez da atsegiña norbaitzuen poza ikustea.

PANTXO: Berrogeitamargarren buelta arte, ondo joan da gurea, pauso luzea emanaz... lasa, lasa...

ELOY: Bai, naparrak abiadura gogorra artu duan arte-raño. Andik aurrera bentaja atera dio, ta geiago dala erakutsi digu; anka zaiñez eta bular-arnasez...

PANTXO: Esan diteke. Alaxen da bai! Ez det uste gureak tongorik egin duanik. Pin jokatu du, bestea geiago izaki ordea... Nun eta Joxe Trapuk eta... zatarkeriren bat egin ez duten. Marka au ta bestea puskatuko zituela. Guzia gezurra! Tra-besa danak galdu ditut!

ELOY: Apustu zaleekin bazabiltza, zurrupatuko dizkitzute txanponak. Joxe Trapu ta gañerakoak etxetik bidaltzea onena genduke, bestela ez degu bururik altxako... Aitari gaur bertan esan bear diot!

PANTXO: Ederki egiña! Nere anaiak neri ere entzun bear dizkit. Alde bitara irabazian jarriko ninduala... ta bietara galdu! Azkenekoa da!

ELOY: Damurik, gure amak izango du naigabe miñena! Onuzkero guzia badaki ta gaitza egingo zitzaien... Gure arreba Arantxa berriz... «como si no», aitaren alaba bait da... asteasuarra.

PANTXO: Arrazoi dek mutil! Berakoetxe kastakoa dek, gu bezela ta odolean zeramakiagu griña... I bearrrik amaren aldekoa atera aiz... zintzo, langillea, segurarra...

ELOY: Bearko! Nunbait gure egitekoa besteen makturak zuzentzea ta besteek txauturiko dirua bilitzea da.

PANTXO: Agian bai. Joanak, joan! Arpegi eman eta aurrera! Orain etorriko zaizkiguk etxe-ondatzailleak, irabazi balute bezela sariak jasotzera...

ELOY: Gure etxeakoak eskarmentatuko balira... au lotsa! Or ibilliko gaitue aotan...

PANTXO: Ni ez naute ba berriz arrapatuko. Ez ditut begiz ikusi nai!

ELOY: Onuntz datoz ba garailleak... oi u eta irrintzika gañera. Ez al dituzu entzuten?

PANTXO: Goazen barrura egin zatela marru, zintzurra larrutu arte (*mutis asirik*). Basa mandako ez bestenak!

(Oiu deadar batzuek entzun bitez jendearen ardalla ta iskanbillaren artean Eup! Txikia! Biba Naparra!) Probintzia-noa kuku!

ELOY: Au lotsa! (*bijoaz*).

VI. AGERRALDIA

KLAUDIO TA JOXE

KLAUDIO: Ez zat gogoko, or plazan ibiltzea oiu ta marru! Gerora gabe, apustuaren garbitasuna egin ta lenbaitlen etxera. Ez dut okasiorik sortu nai...

JOXE: Ori da gastatzeko beldurra dezuna! Naparrak irabazita nai litzake mokau bat jatera konbidatzea...

KLAUDIO: Orretarako dirua jaso bear leenik...

JOXE: Esku onetan dago gizona! Siñaleak erriko sekretarioak ditu, ta jasoko dituzu guziak.

KLAUDIO: Damu det geiago ez jokatua. Gaurkoz ez da belarraren gaiñean gureari irabaziko dionik.

JOXE: Bolara ona daramaki, aitortu bear da bai. Esan nizun... giputza aldarte txarrean zegola...

KLAUDIO: «Aldrebes» bai, esan zenidan, zuk. Emonio! Eskerrak neronek begiz jota neukanari egin niola apustu, bestela toki onean nintzen...

JOXE: Nik bakarrik aitatu nizun, trabesak probintzianoaren alde zeuden eran, bi aldetara irabaztea gerta zitekela.

KLAUDIO: Olako biurrikeririk ez zat buruan sartzen. Aski izaten dut alde batera irabaztea. Onela gertatu dalako, arrantxo bat nere kontura artzera konbidatzen zaitut.

JOXE: Konporme! Bejuandizula Klaudio! Eskarrikasko! Banekin naparrak eskuzabal zeratela...

KLAUDIO: Aldiz aldiz... zurrak ere zaldiz... Sartu gaitez, sartu ostatura.

JOXE: (*Losintxaz*) Garbi irabazi dezute. Ez dago zer esanik.

KLAUDIO: Galdu ere alatsu egingo nizun.

JOXE: Banekin eskuzabala ziñala. Bejuandizula, Klaudio, zuretzat ez da egun txarra izan. Etxe ontakoak ez dute beste orrenbeste esango. Ez nik ere! Zer egingo zaio! Suerte txarra! (*sartuaz*). Edan zagun! Guk naigabea laburtzeko; zuk poza luzatzeko.

KLAUDIO: Goazen bada! (*sartuaz*).

VII. AGERRALDIA

MIGEL MARI ETA ESTANIS

(Burua makurtuta apal antzean agertzen diralarik)

MIGEL MARI: (*Zakar*) Esaten nian, Martin, ik gobernatu dekan bezela ez zezakela marka onik egin! Ta ala gertatu ere! Ederra egin diagu! (*isilunea*), (*berriz ekiñaz*) Nola nai uan gureak naparrari irabaztea obeto mantendu gabe?... Itzegin zak!

ESTANIS: (*gogo txarrez itzegiñez*) Ez da ori aita! Korputzaldi txarra egokitu zaio ta...

MIGEL MARI: Gutxiegi jan dualako. Txuleta bat eta arraultz bat otorduko ez bait da ezer. Aragi geiago ta jakia ugari bear du gizonak indarra izateko. Auleriak galdu du.

ESTANIS: Sabela beteta ez da obeto korri egitea, biotz biri ta arnasa sendotu bear dira eta zanko iztar-rak zaildu. Martinek ez du apustu txarrik egin, baiña naparrak geiago dala erakutsi du.

MIGEL MARI: Nere kontura artu izan banu sistema zarrean, irabazteko moduan zan...

ESTANIS: Illabete beranduago joka izan balu ere bai, ez det ezetzik esaten saiaketak urri; entrenamenduak utsegin dio...

MIGEL MARI: Ez aiz i atarramentu makala! Urrena mutilla ez diat nere eskutik utziko. *(Ezin etsiz)* Napar koskor orri irabazi ez!

ESTANIS: *(Isilunea berriz eta ondoren beldurrez edo albora begiratuaz)* Gauza bat esan bear dizut, gurekiko. Korrikalari batek andregairik ez izatea obe. Ta baldin badu ere, ez dedilla aldamenean bertatik bertara egon.

MIGEL MARI: Zer esan nai dek garbi?

ESTANIS: Urrena apusturik baldin bada, Arantxa aldi baterako etxetik kanpora bidali bearko degula.

MIGEL MARI: Gu ez bagaitue bidaltzen bai! Ez gaitzen sartu emakumezkoekin... Gaur ez dek atsegin izango gure etxekoekin beñepein...

ESTANIS: Galdu degulako, etxean sartu gabe ez gera kalean geldituko. Galtzen ere jakin egin bear da...

MIGEL MARI: Galdutako trabesak ordaintzen ere bai! Klaudio or izango dek onuzkero luzeiritxirik...

ESTANIS: Osaba Pantxo, On Nikolas Sekretarioa, Eloy ta guziak or dira. Sartu zaite aurretik aita (*bul-tzegiñaz*).

VIII. AGERRALDIA

MARTIN KORRIKALARIA TA ARANTXA

*(Astiro datoz, Martin nekatu itxuraz
burua makur)*

MARTIN: Zer ote da galtzea! Ez dit iñork itxoin zuk ezik.

ARANTXA: Ezta bear ere! Orrela bakarrik utzi gaitue. Pakean gure gauzaz mintzatzeko.

MARTIN: Ez daukat gogo aundirik. (*kezkaz*) Garaille irten izan banintz jendea bilduko zan eta txaloka eta aidean ekarriko niñuten etxeraño.

ARANTXA: Ez da izan zure errua. Zuk ez zenduen jokatu nai oraindik. Aitak eta anai Estanisek bultza zaitue.

MARTIN: Beste illabete parean obeto jarriko nintzan. Larraungo Txikia aspaldidanik zebillen saiaketan eta noski zailduagoa dago oraingoz ni baño. Damu det ainbeste diru nere alde jokatu dutelako.

ARANTXA: Zure alde edo azari beltzaren alde. Gauza zan jokatzea! Ez estutu orregatik. Alegiña egin dezu ta.

MARTIN: Ta azkenekoa da. Bai, Arantxa erretiratzen naiz apustutatik, eta orrela zurekin lasago ibilli al izango naiz.

ARANTXA: (*Musin*) Ni... besterik ez dezunerako...? Utsaren urrengo.

MARTIN: (*Maite-maite egiñaz*) Zu lenengo, nere perxtenta... Korrikari utzi-ta lanean asiko naiz geiago itxoin gabe lenbaitlen ezkondu gaitezen. Laisterketa ori bai, irabazi nai izan det zurekin ezkontzeagatik.

ARANTXA: Ortan ere nere aizpak aurrea artuko dit. Eta apustua galdu dezulako gure etxeakoak ez digute laguntza ta erreztasun aundirik emango.

MARTIN: Iñork ezin esango dit, «tongo» egin detanik. Ta arpegi txarra jartzen badidate ez naiz geiago sartuko etxe ontan.

ARANTXA: Gaur bai beintzat, naiz arpegi txarra jartzen badigute ere. Izerditan zaude ta oztu baño len arropak aldatu ta berotu ondoren zerbait artu bear dezu.

MARTIN: Bai baiñan, ez det nai joan sukaldera, guziok bilduta dauden lekura. (*barrendik datozen otsak entzunaz*) Iskamilla ona dabilkite barren ortan!

ARANTXA: Atzeko atetik gora igoko gaituzu (*aruntz abiturik*) Norbaitzuek ba datoz...

MARTIN: Goazen bada, topa ez ditzagun. Galdua galdu! Auxen da naigabea.

ARANTXA: Ez daukazu zertaz lotsaturik. Ni ere etxeoko alaba nazu... (*bijoaz*)

IX. AGERRALDIA

NIKOLAS TA PANTXO

NIKOLAS: *(Paper bat atera ta luma batekin kontuak egiñaz)* Beti da gauza txarra kontuen zuriketa egitea. Siñaleko dirua utziko diet, eta or konpon ditezela!

PANTXO: Neri beintzat apustua galtzea gaizki etorri zait. Bost milla durotik igoko dira.

NIKOLAS: Galerak errezago igo oi dira irabaziak baño. Ez jokatu ta kito! Nik ez det zer ikusirik...

PANTXO: Nere anaiarekin ezin ditekera da ordea. Sartzen da leporaño ta zer ikusi ez degunok ere sar arazten gaitu kokotzeraño.

NIKOLAS: Uzkur egiten jakin bear. Orretatarako ez dago, diruz urri ibiltzea bezelakorik.

PANTXO: Ez naute berriz arrapatuko. Ez ala Jainkoa! Ez nuen garaiz ezetz esaten jakin. Tartean Mikele-leren arazoa genbilkgun eta...

NIKOLAS: Ez ala diabrua! Ez bestena! Arrisku aundia du maitasun gaiak diru kontuekin naastutzeak. Interesa alde batetik dijoa, biotza bestetik... Zaarrak asmo bat dizute, gazteak bestea...

PANTXO: Bai, aitortzen dizut, Mikele gazteegia zala neretzat; edo ni zaarregia arentzat. Urteetan alde aundia alkarren artian.

NIKOLAS: Ta illoba dezula. Famili-arteko ezkontza oriek... Ta batik bat zure anaiaren alabarekin bi korapilloko txibistoa izango zenduen. Eta sake-la ustutzea irugarrena.

PANTXO: Ez, ez! Orain zirt edo zart eginda azkatuko ditut guziak.

NIKOLAS: Bai baiñan zalapartarik gabe. Gure urtetan bare ta astiro artu bear dira erabakiak.

PANTXO: Al danean al dantxoa, Nikolas. Ez daukat itxoiterik. Ameriketatik datozkidan berriak ezin ta txarragoak dira. Emen galtzen, eta Arjentinan ditudan pesoak errekarra. Alderdi ederra lasai egoteko.

NIKOLAS: Ala da, bai. Buenos-Airesko berriak ez dirudite onak. Orduan ta geiago bear dituzu, burua otz ta gibela aundi...

PANTXO: Ez dakit burua ta gibela, baiñan eskua itxi ta sakela, areago oraindik, estutu bearko ditudala bai.

NIKOLAS: Geiegi estutzea ere txarra da. Ez itotzeko, kezkek aizetzea, asmoz aldatzea dezu onena.

PANTXO: Aizeak ez dizkit zorrak ordainduko (*karteran dituan diruak aztertuz*).

NIKOLAS: Ez dituzu orrenbesterañokoak (*isilunea*)
Emen ditugu artzailleak.

X. AGERRALDIA

LENGOAK, KLAUDIO TA JOXE TRAPU

*(Sartu berriak alai datoz eta Joxe Trapu
batik bat edariak artua)*

JOXE TRAPU: *(Pantxo bizkar gañean eskuaz joaz)* Kai-xio lagun zarra! Bazaudetela (*Koipe jario*) Ain zuzen Klaudio kontuk egitera oraintxe dator.

PANTXO: *(Bultza egiñez zakar)* Utzi nazazu pakean.

NIKOLAS: Bai gizona bai! Zu ez zera iñor; ta berdoztuta gutxiago. Klaudiok du itza.

KLAUDIO: Ba... etxera joan nai nukeala lenbailen eta apustua irabazi dugun ezkerro «siñaleak» jaso bear ditugula edo...

NIKOLAS: Ortaz ari giñan mintzatzen On Pantxo ta biok. Neri gordetzeko emandakoak erriko etxean daude, ta paperak dion eran irabaztunak

jasoko ditu diruak. (*Klaudio ta Pantxo elkarrekin itzbidean*)

JOXE TRAPU: Bien «sekirtayo» (*txilbor aldean beatzaz zirikaturik*) Zu zera gizona.

NIKOLAS: (*Asarrexko*) Emen ergelkeri gutxi, zera... Trapu. Ta ardo geiegi edan baldin badezu zoaz lotara.

JOXE TRAPU: Ez asarretu On Nikolas. Diruak ez dirala nereak! Ameto! Konprome! Klaudio da nagusia. Oni eman ta kaixio motel! Aupa!

KLAUDIO: (*Joxe Trapu bazterrera jaurtiaz*) Isilik zaude! Ez degu sesiorik bear-ta. Dirua jaso ta etxerako bidea artu.

NIKOLAS: Ez zera eskutsik joango. Bakoitzari berea da zuzenbidea. Ez egon luzeiritzik.

JOXE TRAPU: Ori da itzegitea! Ez-da apaizak ere! Ori da arrazoia!...

PANTXO: (*Klaudiori*) Ez det iñorekin zorretan geldi nai izaten; nere diruaren jabe naiz.

JOXE TRAPU: Amerikano aberatsa bait da; ez du moka ta muturra jarriko dion emazterik etxean... (*ergel par egiñaz*) Ja! Ja! ja!

PANTXO: (*latz*) Ez emazte ta ez zuk bezelako mozkorrik gañean... (*Bultzaka bazterrera botiaz*) Zoaz

emendik ergel alena ez bestena! Kalera! (*ai! ai! egiñaz bazterrean etzaten da*).

KLAUDIO: (*Pantxori*) Ez egin kasorik! Kopa batzuek edan ta gogaikarri jartzen da...

NIKOLAS: Ez badu aldegiten, kartzelan sartu araziko degu ta pakea!

PANTXO: (*itun*) Toki onean sartu nintzan. (*Joxe Trapu begiratuaz*) Ori zan nere anaiaren adiskidea ta laguntzaillea apustuan...

(Klaudio ta Nikolasekin isilean jardunaz)
(bitartean Joxe Trapu zutiturik)

(berekiko) Nik zer egin dizuet bada? Kalera botatzeko. Apustua ola izan oi da.

irabaztuna armonin
galtzaillea agonin
ez jokatzeara obe zin!

NIKOLAS: Bai! Oa ikullura! Etxekoak ez ditezela kontuan erori. Goazen kontzeju etxera, obe izango degu.

KLAUDIO: Bai, baiñan nik ez dut «sesiorik» bear.

NIKOLAS: Badakigu zuk zer bear dezun... txanponak, sosak... Goazen! Eskuratuko dituzu.

PANTXO: Emendik ateratzeak on egingo digu. Egurastu ta burua arindu zagus. (*bijoaz Joxe Trapu bakarrik bazterran utzita*).

XI. AGERRALDIA

JOXE TRAPU, GERO ELOY,
MIKELE TA JOXE MARI

JOXE TRAPU: (*Erdi balantzaka kantatu beza*). «Ez da filosoforik ez teologorik ardoari neurria artuko dionik» (*edo beste edozein ardo kanta Klaudio-
ren ta atzetik joan naiez. Azkenik berriz erori
bedi bazter batean*)

ELOY: (*Sartuaz*) Soñua zan or! Norbait erori ote dan iruditu zait.

MIKELE: Norbait?... (*Joxe Trapu ikusirik*) O! Ori ez da norbait! Ori da zerbait! Zaragia edo!...

JOXE TRAPU: (*abestuaz*) (*jaiki naiez*) Ai zagia, zagia, zagia; ai zagia pustuta, Zerbait ala norbait... Joxe Trapu naiz bai!

ELOY: Kankar ederra daukazu. Ori apustua galduta. Zer ote zitekean irabazi bazenute?...

JOXE TRAPU: Ez da mozkorra ez! Bultza-ta bota naute.

JOXE MARI: Ez gizona. Ori atxurra dezu. (*Eskua eman ez*) Altxa zaite.

MIKELE: Zutik egoteko gauza al da ba...

JOXE TRAPU: Bai andrea! Gauza naiz! (*balantzaka ibi-lliaz*) Ta banoa... etxe ontatik bidali nautelako.

ELOY: Bialtzeko ohea zaude. Zeñek bialdu zaitu bada?

JOXE TRAPU: Pantxo amerikanoak eta...

ELOY: Ederki egiña! Ta ez bazendu emen geiago oñik jarriko poztuko giñake. Zuen apustu ta temakin etxea ondatu bait dezute.

JOXE TRAPU: Nere bizi guzian zuen aitari laguntzen ibilli nazu.

ELOY: To! Laguntza ederra! Zoaz bai emendik eta ez etorri deitu arte.

JOXE TRAPU: Banoa... (*dijoala*) Baiñan ez uste apustua neregatik galdu danik... Zera. «Konpañeo».

ELOY: Zuk ez dezu beñere galtzen. Apustua izan ezkerro, jan edanean bapo ibilli ta ajola gutxi! Beti irabazian.

JOXE TRAPU: Konporme! Baiñan nik ez det joku zikiñik egiten. Joxe Trapu ez da saltzen (*bijoa*).

ELOY: Zatar, trapu garbirik saltzeko balu...

XII. AGERRALDIA

ELOY, MIKELE TA JOXE MARI

MIKELE: Bereak eta bost esan dizkiotzu Trapu zar orri!
Nik ez dakit gure aita nola fio dan orretzaz.

ELOY: Gure aita? Edozenek ingañatzen du. Gaur entzun bear dizkit ba, naiz gure aita izan. Ea beingoan eskarmentatzen dan. Antza eman diot nigandik igesi dabillela. Eta amaren aurrean azaldu nai ezik. Lotsatuta-edo...

MIKELE: Bai zera. Orretara jarria dago ta betiko lep-
tik burua.

JOXE MARI: Ez al da ba erriko-etxera joan besteekin?

MIKELE: Ez! Barruan gelditu dira elkarren kidakoak:
Estanix, Arantxa ta Martin korrikalariarekin.

ELOY: Ez ditzala amak ikusi. Bestela...

MIKELE: Onuzkero berdin da. Guzia badaki.

JOXE MARI: Ark isuri bear malkoak.

ELOY: Oriek ditugu apustu ta jokuak ekartzen dituan
negarrak.

MIKELE: Gauza da, senarra ta seme kutunari gure amak ez diela itzik esaten. Guk ordaintzen degu erru guzia. Ta arpegi txarra ikusten.

ELOY: Ixo! (*norbaitzuek datozela oarturik*) Emen ditugula, errugabeak, uste det.

XIII. AGERRALDIA

LENGOAK ETA MIGUEL MARI,
ESTANIS, ARANTXA TA MARTIN

MIGEL MARI: (*Ajolakabe*) Etxeko guziak ea emen bildu gera. Orain oraingoak, gero... Etxekoandreak bazkari ona prestatu badigu...

ELOY: (*Kopetillun*) Isilik egon bedi! Ez dio amak entzuten. Andrea lanez lertzen ta senarra apustu ta pestan dirua ondatzen.

MIGEL MARI: Irabazi ez degulako nola egongo dan pentsatzen det... Diru-zalea da-ta...

MIKELE: Ori ere aditu bear gendun! Kopeta bear ori esateko ta (*Estanisi*) zuk utzi ori esaten... (*Joxe Marik ez dio uzten jarraitzen*).

ESTANIS: Irabazi izan bagendu pozik artuko zituen apustuko diruak. Zuek bestela... estraperlo edo tratu beltzetik ateratzen badituzute eman ta kito.

ELOY: Bearko atera, ta lanetik gañera, eta ez zuek bezela jokutik. Eta alperkerian egon da! Toki onera dijoa gure etxea ta gure ama gajoa...

ARANTXA: Nik laguntzen diot sukalde ta etxeko lanetan. Gaurko apustua Martinek galdu badu ez da bere errua izan.

MARTIN: Nezakean guzia egin det. Ez nuen korrika, apusturik joka bear beste amabost egunean...

MIGEL MARI: Bein eguna jarrita gero ez zegon atzertzerik! Itza emandakoan eutsi bearra dago, edo ta bestela siñalea galdu bearra... itza ez ezik...

ELOY: Zuek dana galdu dezute: trabesak, siñale ta lotsa. Gañerakoak ajola gutxi etxea lur jota uzten badezute.

ESTANIS: (*asarre*) Ik lanean jakingo dek eta dirua irabazten ere bai, baiñan ez dek apustuaren berri, anai! Ez aiz beñere olinpiadetan izan, an ikasten dek «Tecnica».

ELOY: Ire tenikarekin toki onean gelditu zerate. Zera...

(Estanis ta Eloy eztabaidan diardutela).

MIKELE: *(kementsu, anai biai)* Ez asarretu, anai artean. Pakea bear degu etxean, naiz apustua galdu bada ere. Aski degu kopeta illun ta arpegi txarrez. *(Bere senargaia aitatzuz)* Joxemari ta biok ez gaituzu etorri apustura baizik etxera agertu bat egitera. Guziok nere senargaia eza-gutu dezazuten. *(Migel Mariri)* Aitak batik bat... Au det nere Joxe Mari!

MIGEL MARI: Ez dezute egun apartekoa aukeratu, baiñan tira! Bostekoa ezin ukatuko diogu. *(eskua luzatuaz)* Kaixio gazte! Ongi etorri. Gure etxean ez degu gaur jai, baño...

JOXE MARI: Ni etxearengatik baño alabarengatik etorria nazu, jakiña, ta ortaz gañera gurasoak agurtzera.

MIGEL MARI: Ez da gurea dalako bañan andregai obetik ez zenduen aisa arkituko. Langille ta maratsa... amaren antzekoa omen da... Orregatik ez dituzu ondo konpontzen elkarren artean...

MIKELE: Aita! Isilik zaude. Ni ernearazi ta lotsatu arazi baño len. Zer esan bear ere zure... sui-gaiak *(Joxe Marirengatik).*

MIGEL MARI: Onuzkero ba daki bai emengo berri, ta
(*Mikeleri*) ta zu ezagutzen zaitu.

JOXE MARI: Ala uste det. Pizka bat beintzat.

MIGEL MARI: Oso dezu pertxenta, gero! Neskaxa
bikaiña. Osabak ere pozik artu izango zuen
emaztetzat.

MIKELE: Baiñan aita! Zertarako aitatu bear zuen aztu-
ta zegon arazoa...

MIGEL MARI: Zure senargaiari adierazteko lenago ere
proporzio onak izan dituzula. Ikusi zala ez naize-
la dioten bezin «etxekalte».

JOXE MARI: Guzia banekin eta zuk esandakoa ontzat
artzen dedanez lenbailen ezkondu nai genduke.
Ez da ala Mikele? (*begiratuaz*).

MIGEL MARI: Baimena ematea ez da nere egitekoa.
Etxekoandreaki eskatu bearko diozute. Nere
aldetik...

MIKELE: Orretara etorri gaituzu bada. Amarekin
pakeak egitera.

MIGEL MARI: Ea orrekin apustukoa aztutzen zaion.
Arantxa ta adiskideari aztu zaioten bezela...
Begira zer gozo dauden... Ondo aitaren alaba
aiz bai! Or daude «como si no». Zer ote da

maite-miña izatea! Ama laguntzea ez da joango ez! (*abestuaz*)

«Ama begira zazu leiotik plazara!».

ARANTXA: (*Oartuaz*) Guregatik ari al zerate? Goazen...!

MARTIN: Ni banoa ta gelditu zaite zu etxean (*Abituaz*).

ELOY: Garaia da guziok ere sartu gaitezen. Alperrik gaude emen.

ESTANIS: (*Martini*) Zu Maraton-korrikalaria zera ta ez amar milla metro plazan egitekoa. Pisuegia zaude...

ARANTXA: Ni ez det nai bada geiago flakatu dedin... (*Arantxa ta Martin bijoaz*).

MIGEL MARI: Au dek au komeria!

ELOY: Ama badator eta ez dakigu nola bukatuko dan eguna.

XIV. AGERRALDIA

LENGOAK ARANTXA TA MARTIN EZ EZIK,
ANABIXENTA TA JULI SARTU BITEZ

JULI: *(Etixeruntz joana naiez)* Noan! Nere amak zer esan bear duan ere! Unetxo baterako etorri naiz eta ordu erdia daramakit.

ANABIXENTA: Zure bearra izan det nere etxeakoak seme-alabak bakarrik utzi nautelarik. Esaiozu amari ez dizudala lenago joaten utzi.

MIKELE: Ama! Gu ere aspaldian etorriak gera.

JULI: Ikusten? Emen dituzu guziak eta banoa... *(abituaz)*

MIGEL MARI: Emen gaude baiñan badago zuretzat lekua, Juli...

JULI: Gure etxean zeregiñik ez banu bai. Emen famili ederra bildu zerate ta gurean ama bakarrik gelditzen dala, zerbait gaizto gertatuko zaiola kezka sartzen zait.

ANABIXENTA: Zoaz orduan Juli. Gizonezkoak ixilik daude ta ez da gauza onik.

ELOY: Ez gera guziak batean itzegiten asiko.

MIGEL MARI: Naikoa mintzatu gera. Orain etxeakoandrearen txanda da.

ANABIXENTA: *(Senarrari begiratu zorrotzez)* Bai, eta nai badezu ta nai ez badezu entzun bearko dituzu zureak eta bost! Ajolakabe ez bestena.

MIKELE: Bai ama! Esango dizkiotzu emen kale atarian azaldu gabe. Etxeko lixuba etxe barnean garbitzea obe.

MIGEL MARI: Semeok itza nere alde aterako al dute! Estanisen esana egin degu.

ESTANIS: Batzuetan! Beste ollar batek egingo zuen kukurruku...

ELOY: Ori bear degu! Aita-semeak burrukan astea! Mokoka.

JULI: Arrazoi du Eloyk. Tira, zaudete pakean eta biar arte Migel Mari. (*dijoalarik*).

MIGEL MARI: Amar kilometro gutxi dira. korrika luzean berriz, «Mariantto»n dalakoan errez irabazi izango zuen gureak. Urrena bearko.

ESTANIS: Maraton aita! Berrogei kilometro.

ANABIXENTA: Zer Maraton ta zer Krilliison! Obe zenu-teke errosarioa errezatu.

JULI: Ori esan. Amen eta Ora pronobis: banoa (*dijoala*) Amen!

MIKELE: Eskerrikasko amari egin diozun laguntzaga-tik.

ANABIXENTA: Bai noski. (*Julirengatik*) Zure bearra izan det egun trixte ontan. (*malkoa dariola*) Zoaz ondotxo.

GUZIOK: Arratsalde on! Bai. Urrenarte! Eskumuñak!

XVI. AGERRALDIA

JULI EZ GAÑEANTZEKO BESTE GUZIAK

(Isilunea)

MIKELE: Bat batean isilik gelditu gera. Aristian alako eztabaida. Tira ama ez bedi orrela goibeldu. Nik berri onak eman nai dizkiot. *(Amarengana urbil-duaz besarkatzen du).*

MIGEL MARI: *(Beste muturrean)* Gure andrea isiltzen danean, ainbat gaizto! Ordun ez da gure Anabixenta, Madalena baizik.

JOXE MARI: Beti ezin izan bada itzegiteko gogorik.

MIKELE: Orretara etorri arazi zaitut etxera guziokin itzegin eta ezagutu zaitzaten.

ANABIXENTA: Egun txarrean!... Egokiera onean gaude-ta...

MIGEL MARI: Ongi etorria egin bearko diogu beintzat. *(Ezkongai gazteai)* zuen artean konpondu zera-ten ezkeru gurekikoa ere antola bearko degu,

etxeakoandre! Alaba galdu ta semea irabazi. Au ere jokua da.

ESTANIS: (*besotik eutsirik*) Mingain ori, aita! Ez ankarik sartu!

JOXE MARI: Ni zuen etxean sartuaz, ez nuke nai ezer galdu dezazutenik. Eta are gutxiago alaba. Gure ezkontza guzior irabazirako dedilla. Uste ontanator.

ANABIXENTA: (*bat batean aria artuaz*) Galdu-irabazia gure etxean geitxo entzuten ditugun itzak dira. Beste bide seguragoa ikusi nai nuke lana; astero jornal mordoska jakiña, illero puntu ta gañerako laguntzak, meriku ta botika gaxotasunean, eta abar. Ori da familia aurrera ateratzeko bearezkoa.

JOXE MARI: Oraindik osasunean gaude eta lanak ez nau ikaratzen. Badaki ondotxo Eloyek.

ELOY: Bai ama! Gurekin tratuan aritzen da. Txanpon ederrik ateratzen du txatarra biltzen... eta saltzen.

ANABIXENTA: Txatarra ala pattarra berdin zait. Gauza da irabaztea.

MIKELE: Ni ere ez nazu «zuntzuna» ez nazute oitu alperkerian.

ANABIXENTA: Danaren bearrean izango zerate. Bizimodua zailla dago. (*senarrarengatik*) Gure gizonek kontun erortzen ez badira ere. Or daude biak... Ala bearrez.

MIGEL MARI: (*bere bazterretik*) Guregatik ari ote diran natxiok seme! (*andreari*) Zerbait gutzaz nai ba dezute?...

ESTANIS: Marmaizoa ugari!

ANABIXENTA: Entzun nai ez badituzute zoazte aita-semeok atariko aizea artzera...

MIGEL MARI: Ori da etxetik bialdu bearra. Goazen seme, burua arintzera.

ESTANIS: Norbaitek anakak ariñago ibilli izan balitu ez giñan onela arkituko.

MIGEL MARI: Ekaitza pasa bitartean baratzen letxu batzuek bilduko ditugu gero barrena prexka dezagun.

ESTANIS: Lenago ere dutxa artua degu... (*bijoaz*).

MIKELE: Ama! (*besarkatu ta musu emanaz*) Aztu bitza orain artekoak. Emendik aurrera bizi modu berri bat asiko da etxe ontan. Ezkondutakoan ere, emen izango du beti alaba, laguntzeko.

JOXE MARI: Eta suia... (*besarkaturik onek ere*)

ELOY: Eta seme kaskar au (*besarkatuaz*)

ANABIXENTA: (*Malkoa dariola*) Beste ondatzailleak ez balira!

OIALA (*geldiro*)

III. EKITALDIA

I. AGERRALDIA

MIGEL MARI, JOXE TRAPU ETA ESTANIS

MIGEL MARI: Apustuak beste itxura artuko zukean asieratik lasago korri egin izan balu.

JOXE TRAPU: Estutu egin zan ordea ta gero arnasak ez zion bueltik eman. Orrela galdu zuan.

ESTANIS: Oiek astakeriak entzun bear ditut. Zer arnas eta arnas ondo! Estomagutik dator guzia. Geiegi jaten eman zaio ta azkenerako bizkortu ta arindu bearrean nagitu egin dezute gurdi-alperra bezela. Korrikalaria ez da arrijasotzallea. Teknika txarra.

MIGEL MARI: Goseak, bada, ez dakar iñon gauza onik: auldade ta plakia ez ezen...

JOXE TRAPU: *Juan Zarrena* famatuak jan zarrean mokaurik proau gabe egiten zuan Lekunberritik Iruñeraño joan etorria. Gureak ere amar

buelta geiagotara izan balitz, apustua irabazia zeukan. Oraintxe egingo nuke desapioa!

ESTANIS: Plazan aritzeko, pisuz gutxitu egin bear du.

MIGEL MARI: Eta gañera buelta bat bentaja ematen diola.

ESTANIS: Aurren aurrena saiaketa «entrenamentua» erderaz esaten dana «cultura fisica» asko.

MIGEL MARI: *Itxura tisikoa* artuko du bai jaten ez badu...

ESTANIS: Ori da aultzeko bildurra. Buruan ezin sartu obe dala korrikalari gosea eta ez asea. Jatena-kin kontu aundia bear dala.

MIGEL MARI: Zuk guk baño geiago dakizu abereak gobernatzen. Orain gure etxeakoandrearekin kontu artu bearko degu. Martin emen dabilleta, beste apustua burutzen ari gerala susmoa ar dezanean...

ESTANIS: Nere asmoa, saiaketak erritik kanpoa egitea da.

JOXE TRAPU: Ondo esana! Konporme! Azpeitia da toki eroso orretarako. Ostatu onak ditu eta Napparroan gure markak ez dituzte jakingo. Ez ta Jesuitak ere!

ESTANIS: Emendik urruti zamar ibiltzea ez da kalte, ez ezen mesede. Orrela gañera andregaia ikusteko gutizirik ez.

MIGEL MARI: Ori da gutxiena... Kezka aundiago nere anai amerikanoarekin izango degu. Zeñek eskatzen orain gure Pantxori dirua... daukan zaputzarekin?

ESTANIS: Nik ez beintzat. Badakit nere kontra oso asarre dagola... Mikelek ezezkoa eman ziolako. Ez det nik errurik.

MIGEL MARI: Begiz jo zuen gure neska ta ezin aztu. Gustagarri da bai Mikele baiñan badira beste emakumezkoak ere...

JOXE TRAPU: Amerikanoak gaztea nai arranopola! Illoba kutuna etxean izanda. Zertara joan auzora billa?

ESTANIS: Baiñan nere arrebak ez du osabarekin ezkondu nai izan, batik bat lendik beste senargaiari itza eman ziolako... Ori da guzia.

MIGEL MARI: Eta orrek ondatzen gaitu. Bero-bero ezkon ametzetan zebillela diru pizka bat ateratzen genion. Orain ez dakit zer nolako aizek joko duen.

JOXE TRAPU: Atariko aizeak... Goazen epelera. Barrua asi bait zait gur-gur egiten.

ESTANIS: Nik itzegingo diot Martini, eta zuek ez txintik atera, apustua berriz alperrik galdu ez dezagun. Kontuz beraz (*bijoaz*)

II. AGERRALDIA

ARANTXA TA MARTIN (korrikalaria)

(*Beste ertzetik agertuaz*)

ARANTXA: Ez zera etorri ez, besterik gabe, ni ikustera...

MARTIN: Bai bada, zu ikustera lendabizi... ta gero, zure anaiak nerekin mintzatu nai badu ez diot uzkur egingo.

ARANTXA: Amabost egunez neri itxoin-arazi egin didazu bada... Eta gaur neregatik baño geiago etorriko zifan apustuarengatik.

MARTIN: Zure ongi etorria ez da izan beintzat suspergarri.

ARANTXA: Apustua bezin suspergarri zuretzat ezer ez!
Naikoa izan genduen lengoa, zuk aukera: ni ala zaletasun ori!

MARTIN: Zergatik ez biak? Ez artu espa txarrik. Zu zaitut extraña ta ez zaitut iñundik galdu nai, bañan apustua ere irabazi al banu.

ARANTXA: Ez zazula apusturik aitatu. Ez dakizu nola dauden etxean.

MARTIN: Emakumezkoak errez ikaratzen zerate. Ta bakit zure amak ez dula nai sui bat korrikalari.

ARANTXA: Apustulari ez beintzat. Ortatik geiegi dago gure etxean... Naigabe aundiak izan ditugu geroztik. Diru-galtzea dala-ta, osabaren asarrea, Mikele Joxe Marirekin ezkontzen dalako, ta nik al dakit!

MARTIN: Zure amaren aurrean ezin agertuko naiz orduan?

ARANTXA: Apustu zurrean ez beintzat!

MARTIN: Bai, ordea, zu ikustera... ta bidez zure aita ta anai Estanis arkitzen baditut...

ARANTXA: Jakiña! Alkar ikusiko dezutela. Onak zerate gizonezkoak buruan zerbait sartzen zaizutenean! Egosgogor eta setatiak...!

MARTIN: Gure zaletasunean pijo! Eta amoriyoan pin!
Arantxa! (*leunki arpegia ikuturik*) Emakumezko-
ak aldakor eta «aizeago» omen zerate.

ARANTXA: Gu? Neskatxa gajuak zuei itxoiten egon
bear, merezi ez ba dezute ere. (*maitekiro
elduaz*) Jainkoak egin zuen Martin bere abarke-
kin. (*bat batean bereziaz*) Amaren pausoa irudi-
tu zait. Onuntz ote datorren derizkiot. Goazen
atzealdera, ikusi ez gaitzan! (*Eskutik artuta
darama*)

MARTIN: Orrela katua ta sagua bezela ibilli bearra ere,
korrika txikian! Obea da apustua! (*bijoaz*)

III. AGERRALDIA

ANABIXENTA TA NIKOLAS

ANABIXENTA: (*Zeletan zegola Nikolas kaletik datorre-
la ikusitakoan atarira azaltzen zaio*) Zure zai
natzaizu Nikolas!

NIKOLAS: Zer dezu, etxekoandre?

ANABIXENTA: Zer detan? (*Asperen eta antsika*) Zeo-
rrek antzemango diozu, gure etxeko berri ondo

dakizu ta. Ea estuasun ontatik ateratzen laguntzen ote gaituzun.

NIKOLAS: Orrenbestekoa al da bada?

ANABIXENTA: Aundienetakoa, erremediorik jartzen ez badiogu. Eta zure eskuan dago gaitz eta ezbeerra galeraztea.

NIKOLAS: Nere almena goragi jartzen ote dezun nago. Nezakeana egingo dizut, Anabixenta, ta lasaitu zaite.

ANABIXENTA: Erreza al da? Ondo dakizun bezela gure gizonak, etxea bi aldiz erre kara bota digu, lenago ere, ta Jainkoak daki burua altxatzen kosta zaiguna. Eta orain irugarrenez ondatzeko zorian gaude. (*Antsika malkoa dariola*).

NIKOLAS: Zertara zoazen badakit...

ANABIXENTA: Zoritzarreko joku ta ditxososko apustuok! Lengoaz gañera beste apustua egin naiean dabilta. Eta ori izango degu gure azkena! Fin gaizto egin bear degu!

NIKOLAS: Zerbait entzuna naiz bai, baiñan ez det uste erabakia dagoanik. Erriko etxean ez dakigu beintzat ezer, eta baimena eskatu bear dute.

ANABIXENTA: Ori da bada nai nukeana. Agintariok ez dezaiela baimenik eman. Guzia joku zikiña besterik ez bait da! Trapukeri eta alperkeria!

NIKOLAS: Legez ez dirala ari, norbaitek salatuko balu... Or dago koxka!

ANABIXENTA: Bai ni ere, emen nago salatzeko, eta ez ditugu urruti pikaro jokalaria. Guziok artuta giltzapean sartuko balituzteke orduntxe lasaituko litzaidake barrena. Azken apustua ezkerro, ez jan, eta ez lo nabil. Eta eskerrak gure amerikanoak zor geienak ordaindu zizkigula, baiñan, aurrerantzen nori eskatu bear diogu? Norengana jo berriz ere apustua galtzen ba dute?...

NIKOLAS: Anabixenta, zure barru on goibel eta leizazuloa bezin illun sumatzen dizut. Utzi zaidazu argi-izpi bat piztutzen. Apustu berri ori nola edo ala galeraziko degu. Utzi nere esku! Ez kezkarik izan! Ez bar ori astutzeko, etxean beste korapilluak azkatzen, badezu naiko lan.

ANABIXENTA: Ori esan! Naigabeak ez dira banaka etortzen, guziak batera baizik. Amerikanoa zapuztu zaigu Mikelek egin zion erdeñuagatik ta alabaren despreziua dala-ta, guri sakela itxi

digu. Ezkontzeko tirria sartu balitzaio andregai on bat laister arkituko genioke.

NIKOLAS: Ala bada! Zer derizkiotzu Julirekin ezkondu araziko bagenu?

ANABIXENTA: Ez da erreza zuei, mutil zarroi gusto ematea. Ezetzean jartzen zeratenean! Akabo! Mutil zar egosgorrok!

NIKOLAS: Ezkondutakoak ere ba! Ez dakit zer dan gaitzago: zure senarrari apustu-griña burutik kentzea, edo koñatua tajuz ezkontzea. Biak bait dituzu buru gogor, anai izaki! Berakoetxeatarrak!

ANABIXENTA: Bigundu al bazenituke ez litzake mesede txikia gure etxerako. Ni, nere onetik ateratzen naute, eta ezin asmatu det asarretu gabe itz bat esaten. Ai! Lezoko Gurutzea ta Arantzazuko Ama Birjiñ maitea!

NIKOLAS: Obe da beti gauzak pakean antolatzea, biderik baldin bada beintzat, aleginduko naiz.

ANABIXENTA: (*Antsika*) Orrelako bat egingo bazendu, Nikolas. Zure santu-zaindariari jaiera aundia diot eta zuretzat erregutuko det.

NIKOLAS: Ni ere premian nago, ez uste... jokalarien labe ortan sartzeko. Banoa beraz. Zu gelditu

zaite emen. Eta geldi mingain eta nerbioak.
(Kirioak) (*bijoa*)

ANABIXENTA: Ementxe eserita gelditzen naiz, Eloy eta Mikele onuntz datozela ikusten bait det. (*isilunea*) Zer ote dakarte?

IV. AGERRALDIA

ANABIXENTA, ELOY ETA MIKELE

(*Kaletik sarturik*)

ELOY: Ama! Alare! Bakarrik zaude eta etxe barruan elkarrekin lasa ezin itzegin degun ezkerro emen jardungo degu. Gerorako utzi gabe, ta serio gañera.

MIKELE: Ben-benetan itzegin bear degu. Bada (*zalan-tzan*) Nere ezkontzaren arazoa erabaki bear degu. Ori esan nai diot lenengo.

ANABIXENTA: Jesus milla bider! Ezkondu? Eztaiak, emen gertatzen ari diranakin?

MIKELE: Orregatixek bada amatxo! Ez goaz egun bat ere atzeratzera... Beti gerorako uzten.

ANABIXENTA: Baiñan...

ELOY: Luzeiritzirik daude... maite-miñez. Naikoa itxoin egin omen dute-ta. Ortan dabillenak daki zer dan ezin egona.

MIKELE: Ez dakit naikoa dan ala ez, eguna aukeratu degula bai ordea datorren illaren 12n, ain zuzen nere urtebetetzea.

ANABIXENTA: Ez daukat aztuta ez! Enetxoa, baiñan Mikeletxo ordea... biaramonean beste apustua dala jakingo dezu noski. Ortan dabilta beintzat eta zalaparta ederra izango da etxe ontan. Jesus milla bider! Garbi jakin arte, eztayak ezin prestatuko ditugu.

MIKELE: Alik eta prestakizun gutxienekin obe. Apal, eta soñu gutxi atereaz.

ELOY: Zer da lenago ama? Apustuari hegira egotea edo alaba ezkontzea? Arritzekoa da apustuaren ain etsai izan eta jokuarengatik eztaiak luzatzea.

ANABIXENTA: Ez da ori! Ez zerate jabetzen... Apustuari diodan gorrotoa ondo dakizute ta galerazi naiean nabil orain ere. Baiñan zertan gelditzen dan ikusi arte ezin asiko gaituzu eztaiak gertu-

tzen... Zera, ainbeste gauza antola bearra dago...

MIKELE: Ez ortaz kezkek izan ama, geintsuenak egiñik ditugu: erri-etxeko paper eta agiri, Elizako baimena, dei eta abar. Apaiz jaunarekin itzegin degu eta beinkapena agindu digu. Nere «arreo» ta soñeko, zuri ta kolorezko, aspaldidanik bukatuak ditut.

ANABIXENTA: Ez da ori guzia! Diru estuasunean gabiltza-ta...

ELOY: Ez orrengatik estutu ama, emen gaude gu.

MIKELE: Gastua ta txautu bearra gure bizkar izango dira.

ANABIXENTA: Eta ez gutxi. Zuek kontuak atera.

MIKELE: Aspaldidanik atereak ditugu, ama, eta eguna ere aukeratua, datorren illaren 12n. Beraz emendik 6 astera. Elizan iru dei aizatzeke aña ta geiago!

ANABIXENTA: Aide ta senide artekoai adierazi bearko zaie bada...

MIKELE: Ori da lanik errezena. Joxe Mariren guraso, senide ta gure etxekoak besterik ez bazkaldar... Astelenean erortzen da...

ANABIXENTA: Lixuba eguna. Astearte edo azteazkena gure etxerako obeak dirala esango nuke. Bestela igande ta astelena bi jai.

ELOY: Ainbat gure alde! Jai bi! Gero ere or izango du aste guzia lan egiteko. Egun artan apain-apain egiñik elizara, alabari laguntzera. Joxe Mariren ama ta ni amabitxi ta aita jaun...

MIKELE: Soñeko berririk egin bearrik ez du. Badu sedazko beltza eder askoa.

ANABIXENTA: Apainketako gogo gutxi geldituko zait, apustu zantzurik sumatzen badet.

ELOY: Zer apustu ta zer apustu ondo! Ama, datorren illaren 12n eztaiak ta kito! Oraintxe dator Joxe Mari Mikeleren eskua ementxe eskatuko dio.

ANABIXENTA: Oraingo txorakeriak! Gure denboran gurasoak paperak egin oi zizuten eskribau-nean... eta gero arrea ondo jarrita gurdian, etxekoandre berriarengana, soñu ta guzi, auzoa zearkatuz, aundiro eraman oi zan...

ELOY: Antigualeko oiturak ama, gaur Joxe Marik kamionetan artuta etxe berrirako puska guziak eramango dizkio.

MIKELE: Bai ama, eta ezkontza egunean guziok «taxin» joango gera elizara.

ELOY: *(kaleruntz begiraturik)* Or dator billa Joxe Mari!
Juli ere tartean dala iruditu zait.

MIKELE: *(aiengana abiatuaz)* Biak dira bai... Au poza
(agurtzera joanez)

ANABIXENTA: Datozela ba! Merienda edo mokau legeren bat eman bearako diegu. Gurea etxe legorra ez dala esan ez dezaten. Aurrera! Aurrera!

V. AGERRALDIA

LENGOAK, JULI ETA JOXE MARI *(sartuaz)*

JULI: Nik ez nuke sartu bear, enbazo egitera, baiñan gazte oiekin *(Mikele ta Joxe Mariri erakutsiaz)* topo egin det kalean eta derrior etorri arazi naute. *(Mikele ta biak elkarrekin itzegiñez).*

ANABIXENTA: Ez dezu iñoren baimenik bear. Etxekoa zaitugu ta noiz-nai sartu ziñezke kupirik gabe.

JOXE MARI: *(Anabixentari)* Arratsalde on! Etxekoandre ta... gero amona... *(eskua emanaz).*

ELOY: Ain aguro ez! *(parregiten dutelarik)* Ikusten dezu ama zer nolalako asmoekin datorren.

ANABIXENTA: Ez ikusia egiñagatik aspaldi nuen onen berri, ez uste itxu nengoanik. Erreparatzeko din da...

ELOY: Au dezu, bada, zure alabaren galai, burni-tratari ta txatarra biltzale pijoa! Utsean erosi ta garesti saltzen dakina.

JOXE MARI: Al dana egiten da. Ta (*Eloyri*) ez illea artu.

JULI: Anabixenta, pozik egon ziñezke orrelako suya dala-ta; ta zu (*Mikeleri*) senargai bapua aukeratzten jakin dezulako...

MIKELE: Ez det ezetzik esaten...

JOXE MARI: Eta (*Anabixentari*) baimenik ematen badiguzu laister eskontzeko asmoa degu.

ANABIXENTA: Bearko eman! Bestela zeok artuko bait dezute. Elkarren gogoak zeraten ezkerero Jainkoak bedeinka zaitzatela!

JULI: Bai Anabixenta, guzientzako izango da pozgarri.

ANABIXENTA: Bai, etxean beste buru austerik ez bagenu.

ELOY: Ez izan llanturu, ama! Utzi bitza buruaustek eta barrena alaitzeko zerbait janez edan zagun! Ni gose eta egarri nago beintzat. Amorioak ez nau asetzen.

MIKELE: Ori! Ori! Ez da ni ere. Goazen zerbait artzera.

ANABIXENTA: Eskeintzeko asmotan nintzaizuen. Goazen barrenera...

JULI: Nik joan bearra det eta uzten zaituet.

ANABIXENTA: (*Besotik elduaz*). Ez, zu besteak bezela barrura. Zure bearrean nazu gaur egundaño ez bezela... (*bijoaz*).

VI. AGERRALDIA

NIKOLAS ETA PANTXO

(Lenengoa etxe barrendik eta bestea kaletik datozela)

NIKOLAS: (*barruan jokalariak ateratzen dituen otsak entzun bitez*) Gizona! Garaiz zatoz! Nun sartua ote ziñan ausnartzen ari nintzan. Zurekin itze-gin bearra bait det... Ez ezen... (*isilago etxe barreruntz begiraturik*) Montekarlo txiki da barren ori ta «droga» jende oriek berriz ere ordago bota naiez dabilta.

PANTXO: Ajola gutxi. Bankotik nator eta emengoak ez dit kezki ematen. Or konpon!

NIKOLAS: Ez dakizu nola dauden. Berriz ere apustua bero-bero antolatzen ari dira. Oraingoan Naparrak Txikiari buelta bat bentaja ematen diola. Beste apustu berria egiteko aguroegi dala esan zaie... baiñan alperrik! Ori da griña! Etxea ondatu arte ez dira geldituko.

PANTXO: Ez dezatela nere diruarekin konta gero, zorrak ordaintzeko. Amerika bukatu da. Bankoan oso berri txarrak eman dizkirate Buenos Airesetik. Peso dirua errekarra joana da ta gañera ez dizute uzten andik ezer ateratzen. Amerikanoak aizetik bizi bearko degu. Eskerrak emen zerbait badedala ta gañera Eloyri lantegirako aurreratu nion diru mordoska ederra, bestela...

NIKOLAS: Alare! Lantegi orrekin oso ondo omen dabil-tza Eloy eta... Joxe Mari koñadu gaiak txatarra sal-erosiaz dirua polliki irabazi duala esan didate, eta orrengatik nunbait Mikelekin ezkontzeko irrikia... Anabixenta dago txundituta. Batetik apustua... bestetik ezkontza...

PANTXO: Neregatik «Mus!» Egin dezatela nai dutena! Ameriketara joatea obe izango ez ote nuken sumatzen ari naiz. Ango arazoak antolatzera.

NIKOLAS: Ez zaizu komeni bakarrik abitzea. Gure urte-tan, Pantxo, osasunari diruari baño geiago begira bear zaio. Bidai luzea nola nai, eta itsasoak naasten zaituala...

PANTXO: Orain, aidez, bi egunean an zera, eta onuntzakoan beste bi. Igesalditxo bat da.

NIKOLAS: Bai, bidean erorita ez bazerate purrukatzen. Abioia nai duanarentzat. Eta zer gerta ere bakar-bakarrik... etxetik kanpo? Gauza motza. Zu zauden eran zainduko zaitun emakumezko txukun eta marats bat aldamenean bear dezu.

PANTXO: Zuk dakizu ondoen, ortan asi nintzala. Oker irten zitzaidan ordea, eta ez det berriz arri berean ostopo egin nai.

NIKOLAS: Ezkontzea dagokizula zeorrek aitortzen dezu. Bein asmatu ezagatik, ez du gizonak atzera egin bear. Begira Pantxo, aspaldiko adiskidea ta lagun zaarrak gaituzu, eta leen ere esan nizun nere iritzia pamili arteko ezkontza beti arrisko duna. Osaba-maitasuna ez da senar-maitasuna; illoba emaztetzat artzeak alderdi txar asko ditu. Beraz, zure aukera ez zan bidezkoa eta... azkenik Pantxo, gazteak gaztea nai

du ta ez agurea. Mikele bere kirakoarekin... zoriontsu, eta zu ta ni gure diñakoekin.

PANTXO: Bai! (*eskua Nikolasen bizkar gañean ezarrita*) arrazoi dezu. Illobarekin itxutu nintzan. Orain lausoa begietatik joan zait, eta amets gaitz bat besterik ez zala aitortu bear.

NIKOLAS: Orrelako pausoak esna ta buruz erne gaudela ematekoak dira.

PANTXO: Bai, eta on dala-ta nagon eran jarraitzea erabaki det, naiz bakarrik bizi.

NIKOLAS: Ez bat eta ez bestea! Illobarekin ezkontzea lege guzien kaltean bazenuen; emazte bat artzea, andre on bat aldamenean izatea, berriz, bidezkoa dezu, nai ta naiezkoa. Ta guzia esateko... zure neurriko, Juli ez litzaizuke txarra.

PANTXO: Ori al zenuen esan bearra! Ja, ja, ja! (*par izuzenez*) Sermolari, uztargille ona egiñik zaude. Ez da aski besteri aolkuak ematea. Nikolas? zu ere ezkongai zaude ta Juli ez litzaizuke txarra.

NIKOLAS: Zure aldean arlote bat nazu ordea, eta ezer gutxi eskeñi nezaioke emakumezko bati. Zure egoera bestelakoa da. Ta bion artean ez da zaila aukera egitea.

PANTXO: Nere aukera badakizu bada... Argentinaruntz itzuli bat egitea ango ondasunai begiratu bat botatzera. Joan bearrean arkitzen naiz ondamentik atera nai badituz.

NIKOLAS: Ala baldin bada, ez da itzerdi bat geiago egin bearrik gai ortaz. Asmoa artu badezu isiltzen naiz.

PANTXO: Bai Nikolas, ez aitatu iñori baiñan laister noa. Oso berri txarrak artu dituz Buenos Airestik. Goazen! Bidean esango dizkituz.

NIKOLAS: Ordun bai utzi bear nazula bakar-bakarra...

PANTXO: (*irriparrez*) Zuk bear dezu andrea, zuk! Goazen! Ixo!... Klaudio Naparra dator-ta.

VII. AGERRALDIA

LENGOAK ETA KLAUDIO

KLAUDIO: (*asarre ta mindua azken apustuaren dirua oraindik jasotzeke dualako*). Eup! Etxekoak! Bagaudela e?..

PANTXO: Bagoazela, esango nuke adiskide...

NIKOLAS: Berandu zatoz, Klaudio.

KLAUDIO: Nun ditugu apustuzaleok?...

NIKOLAS: Elkarren berri jakingo dezute. Sartu zaite or dituzu barren ortan eta...

KLAUDIO: Etortzeko otsegin bait didate. Lengo bost milla duroaz gañera beste orrenbeste jarri nai dituela, berrogeian baietz... zuenak alegia, eta gureak bi minutu ezetz.

PANTXO: Gero ta gutxiago jabetzen naiz zuen baietza ta ezetzak zer diran. Gauza garbirik ez beintzat. Or dituzu barren ortan zure kirakoak (*ezker aldera bultzatuaz*).

NIKOLAS: Ez zaitezela alde ortara joan. Sukaldean emakumezkoak dituzu ta etxeakoandreak ikusten bazaitu irakiten asiko dira eltzeak ori da sikulu saltza!

KLAUDIO: (*beste aldera joanez*) Zer nai trabesa egin nai omen dute-ta nereko esan dut: orain duk garaia lengoak zuritzekoa...

NIKOLAS: Zer nolako atetan jotzen dezun kontuz ibilli «konpañeo!» Zuritu bearrean ubeldua atera ez dakizuen.

KLAUDIO: Ni ere ez naiz itzez pio ta papera egin genezake pirma ta guzi. Ez al da ala nagusi? (*Pantxori*).

PANTXO: Ni ez nazu tartekoa adiskide. Jokuak utzi nituen. Ez daukak zer ikusirik...

KLAUDIO: Amerikanoan diru-soñua zala seguruena aditzera eman dute bada...

PANTXO: Ez egon nere diruaren soñuaren zai. Urrutiko intxaurrak...

KLAUDIO: Zerbait izango da. Ez al da ala Sekretario jauna?

NIKOLAS: Nik ez dakit ezer. Or dituzu barren ortan apustu zaleak eta zuzen-zuzenean galdegitea dezu. (*bultza egiñez*).

KLAUDIO: Leen ainbeste erronka ta orain probintziano jendeak epeltzen asiak ote zeraten... Momioa emango zaizue gizona (*sartuaz*) Eup! (*barrean daudenai oi u egiñez*) Ba zaudetela e?

VIII. AGERRALDIA

PANTXO ETA NIKOLAS

NIKOLAS: Auxe da lanbidea! ezin atera gera etxe ontatik.

PANTXO: Bustiñetan oñak sartuak bait ditugu nai ezean ere.

NIKOLAS: Etxekoandrea kontuan eroriko da apustuza-leok etxeari su ematen ari zaizkiola ta *komerik* izango ditugu. Apustu aurretik norbaitzuek korriegin bearko dute. Goazen, goazen lenbaitlen...

PANTXO: Bai, obe degu bustin ta guzi aguro anka egin.

NIKOLAS: Erriko etxeraño joan bearra det, ta lagundu nazazu istilluari iges egiñez.

PANTXO: Ez zait gaizki etorriko aize preskoa artzea. Bitartean Telefonora, gauerako konferenzi bat eskatzera.

NIKOLAS: Laister egingo degu itzulia. Ea orduko ekaitza uxatu dan.

PANTXO: Azkenerako guziok adiskide. Pamiliko asarreak pamilian egosi oi dira ta nere anai Migel Mari bere kaikukerian andreari aria artzen badaki. Eta Estanis amaren seme kutuna bait da, zer nai dezu? Senide-maitasunak guzia leuntzen du.

NIKOLAS: Ortan arrazoi dezu, Pantxo. Mutil zarrok, berriz, maiz gabiltz arrika geren buruekin (*bijoz*).

IX. AGERRALDIA

ARANTXA TA MARTIN (Korrikalaria)

ARANTXA: Ez dakigu nun sartu. Auxen da lanbidea! Ez digute iñun uzten bakarrik egoteko lekurik. Ori, etxe aundia degula.

MARTIN: Ala gertatzen da errota ta ostatutan. Eta apustu usaia danean areago. Beti jendea, erruz. Klaudio naparra sartzen ikusi degu. Badu pizka baterako.

ARANTXA: Ondo etorri zaigu alde egiteko, bestela ezin itzegin degu jendearen aurrean ez bada. Orain bakarrik gaude...

MARTIN: Ez badira asten nere billa.

ARANTXA: Ez zera emendik joango. Ez det nai apusturik joka dezazun.

MARTIN: Plaza betetzen dala txanpon ederrak irabaziko nituke beintzat eta zer nai dezu! Txarrak al dira ezkontzeko?

ARANTXA: Mikeleren *nobioak* korrika apustu gabe egin ditu txanponak.

MARTIN: Ni ez naiz ordea «txatarrerua» txoferra baidarik eta besteren mendean mutil gañera. Beste lanen batean pozik asiko nintzake zuk ala uste badezu (*arpegian maite egiñez*).

ARANTXA: (*latz*) Kontuz, ez dituzu esku oso leunak eta...

MARTIN: Guanteekin ikutuko bearko zaitut Arantxa! Bost milla duro eskeñi dizkidate apustua jokatzeagatik.

ARANTXA: (*par gozoa egiñez*) Egitan?.. Ba diru orrekin eta beste zerbait geiago jarriaz kamioi bat erosi bear zenuke ta orrela obeto aterako zenuke bizimodua korrika-apustuan baño.

MARTIN: Orretarako apustua joka bear ordea. Eta irabazi ezkerro, gañera, kamiona ez ezen, autobusa ere erosiko nuke.

ARANTXA: Orduan... apustu ori azkenengoa izan dedilla... Itza eman zaidazu...

MARTIN: Bai maite, itza ta pizza! Zuri emango dizut dirua gorde dezazun.

ARANTXA: Ortan gelditzen gera. Seguru gero?... (*barrendik datozen oiua eta otsak entzun bitez*) Ori istillua dabilkite! (*entzunez*) Ori ardalla!

MARTIN: Klaudiorekin asarretuko ziran. Pizti txarra da ori. Elkar joka ez badira asten. *(isiltzen dira)*

ARANTXA: Sukaldetik ere entzungo zituen bada. Ama ta gañerako guziak an bait daude. *(adi entzunez)* Onuntz datozela sumatzen det. Berriz ere atzekoaldera joan bearko degu.

MARTIN: Ez digute uzten soseguz itzegiten. *(berriz oiuetara karraxiak barrendik)*

ARANTXA: Badatoz eta goazen ezkutatzera, ikusi ez gaitzaten. Atoz! *(eskutik eramanez)*

MARTIN: Zure atzetik ez noa gaizki... Aizeak darama orbela.

X. AGERRALDIA

(Erdiko atetik Anabixenta, Juli, Mikele, Eloy eta Joxe Mari agertuaz)

JULI: *(Etxekoengandik alde egiñez)* Noan, noan! Sartu-irten bat egitera etorria nintzan, eta ia ordu erdia damakit emen. Berriz ere nere amak esango du...

ANABIXENTA: Ez du ezer esango. Ez dauka beste olako alabarik izaterik!, eta ez guk ere ain lagun leialik.

MIKELE: Ala da bai, eta eskerrikasko zure laguntzaga-tik.

JULI: Ez da ezer! Esatea ere! Guzia, azkenerako, anto-latzen badezute, atsegin izango det. Eta ea (*Mikeleri, laztanduaz*) datorren illean egun zoriontsu bat ematen diguzun.

MIKELE: Alegiñak egingo ditugu. Ta zu... kontatzaille... (*barrendik apustuzaleen oiu ta otsak entzuten dira*)

ANABIXENTA: (*adi-adi entzunez*) Soñu txarra dator barren ortatik, dantza onerako.

JULI: Dantzan ari badira, gaitz erdi...

ANABIXENTA: Inpernuko dantza. Joku madarikatua! Gure gizona okerrena! (*otsak gero ta biziago-ak*).

ELOY: Gure aitaren otsa da ori. Asarratzen ez badira.

JOXE MARI: Pakearaziko ditugu. Ez dira burrukan asiko.

ANABIXENTA: Zoazte ba ezpada. (*Eloy ta Joxe Mari barreruntz doazela*)

ELOY: Bai ama, ez dute odolik isuriko. Ez zera alargun geldituko. Ez bildurtu.

JOXE MARI: Gu ikusi orduko isilduko dira. (*bijoaz*)

XI. AGERRALDIA

ANABIXENTA: Ai ene! (*antsirika*) Zoritxarreko apustua!
Gure gizonen griña! Orixen da sarturik duten zima!

MIKELE: Ama! Eloy ta Joxe Mari bestelakoak dira ta bidaliko dituzte kalera sesioa jartzera.

JULI: Bai emakumea! Aitak semeen esana entzungo du eta zentzuz ariko da. Kalera oraintxe doana ni nazute. Ario ba...

ANABIXENTA: Geldi zaite, Juli, zertan bukatzen dan ikusi arte. Ixildu dirala badirudi.

JULI: Jakiña! Zerbait edan ondoren errez berotzen dira gizonezkoak eta gero oiua ta marru burua arindu arte!

ANABIXENTA: Eta gu prejitzen... kixkaltzen... Zure gibela bear nuke. Geldi zaite, eder ori.

JULI: Au Anabixenta (*laxtanduaz*)

MIKELE: *(Ateruntz joanez ikus-mira eginda itzultzen da)* Isildu dira ta badatoz... Etxekoaz kanpo, Joxe Trapu deitzen duten birigarroa; ta beste tratalari napar koskorra dituzu!

ANABIXENTA: Inguruko alper guziak! Betikoak! Besotik elduta kalera botatzeko gogoak ematen dit.

MIKELE: Ez ama! Or daude Eloy ta Joxe Mari ta aski dira txorimaluok uxatzeko.

JULI: Arrazoi du Mikelek. Gizonezkoak gizonezkoekin antolatu ditezela. Badatoz. Goazen bazter batera. *(txoko batean bildurik)*

XII. AGERRALDIA

LENGOAK ETA ELOY,
JOXE MARI, ESTANIS, MIGEL MARI,
JOXE TRAPU TA KLAUDIO *(sarturik)*

ELOY: *(Besotik Joxe Trapu artuta)* Tira Joxe. Zoaz lenbaitlen emendik eta ez zaitez agertu illabete pare batean. Bestela Polizikoak lotuta eramango zaitue... Tira alde! *(bultzegiñaz)*

JOXE MARI: *(Klaudiori)* Ta zu zoaz koko-errira! istillua jartzera.

KLAUDIO: Ni ez nazu istillu zalea. Nere diruaren billa etorria naiz. Joan dan apustutik zor didatena eskuratzea.

JOXE MARI: Juezaengana joan auzitegira, eta an zuri-tuko dezu auzia. Ez emen...

KLAUDIO: Edozeñengana joango naiz. Datorrela nerekin Migel Mari. Bost milla duro zor dizkit eta baditut testiguak...

ANABIXENTA: Jesus milla bider! BOST MILLA DURO! Ondatu gera! Nere senarra ez dedilla etxetik atera! Ai ene!

MIKELE: *(Mikele ta Julik besotik eldu sosegatu naiez)* Ama ixilik egon bedi. Bijoazela! Gero ikusiko degu zer egin.

KLAUDIO: Nik ez dizut gizonik bear, ez ezen, nere dirue...

JOXE MARI: Txanponak biribillak dituzu ta, joan bezela etorri oi dira.

JOXE TRAPU: Bigarren apustua egin ondoren ordainduko zaizu guzia...

KLAUDIO: *(atetik itzuliaz)* *(asarre)* Ori ez da esandako itza.

ELOY: Zer itz ta zer pitz! Zoazte plazara! Alde! (*Joxe Mari besotik Joxe Trapu ta Eloyk Klaudio bultze-giñez aterazten dituzte*).

JOXE TRAPU: Obe nin sartu ez ba nin.

XIII. AGERRALDIA

JOXE TRAPU TA KLAUDIO EZ GAÑERAKO GUZIAK

(Migel Mari ta Estanis ertz batean eta emakumezkoak bestean zeuden, baiñan arrotzek joandakoan, elkarrengandik urbiltzen dijoaz. Eloy ta Joxe Mari tartean dituztela).

ANABIXENTA: (*Migel Mari ta Estanisi*) Aita-sumeak lasa zaudete jarri dezuten ixkamilla jarri ta gero. A zer nolako bikotea!

MIGEL MARI: Gu? Ixkamilla bestek jarri dute, ez guk.

ESTANIS: Bidali dituzuten kaiku tzar oien saltzak.

ANABIXENTA: Ez zuek okasiorik eman izan ez bazenien... Zorrak norenak dira bada?

MIKELE: (*Tartean sartuaz*) Begira ama, gaur ez degu asarrerik bear. (*Aitarengana joanez*) Aita! Joanak, joan! Ez geiago aitatu orrelako konturik gure etxean. Datorren illean... Joxe Mari ta biok ezkontzen gera... Onatx nun dezun nere senargaia (*aukertuaz*).

MIGEL MARI: Suiari ongi-etorria egin bear, bada... (*esku emanaz*).

JOXE MARI: Baimena ematen ba diguzu beintzat...

MIGEL MARI: Bai, bai, neregatik ezkondu nai ba dezute, ezkondu zaitetzteke, «solamente» aukeratu dezuten eguna ez dakit egokia dan. Ain zuzen biaramonean apustua ote dan edo... Estanisek daki...

ESTANIS: (*bizi*) Ori zuek erabaki dezute. Ez da nere gauza.

ANABIXENTA: (*Asarre-gorrian*) Zer apustu ta apustu ondo! Orain nik itzegingo det... (*aita-semeak isilik nora begiratu ez dakitela*) Bai! egun ortan ezkonduko dira ta jakin zazute ez dagola apusturik! Neronek galeraziko det agintariengana joanez ta salatuaz. Zuen joku ta griña kaltegarri oiekin aspertu nazute! Eta etxe ontan aurrerantzean ez da sartuko ez Joxe Trapu, ez Klaudio

napar; ez jokalaria ta ez tratalari gezurtirik. Ez!
Etxekoak eta kito! *(Itz oriek esateko egin duen
alegiñez negarrari ematen dio).*

JULI ta MIKELE: *(Anabixentarengana joanaz laztanduz
ta pakearazten dute)* Au da etxekoandre
kementsua au. Ama!

MIGEL MARI: *(Estanisi)* Gure andrea asarretu zaiguk.
«Tiburzioa» eskatzen ez badu.

ESTANIS: *(Isildu araziaz)* Ez esan astakeririk, aita!

ANABIXENTA: *(bere onera berriz etorriaz, ta senarrari
begiratuaz)* Pozbide gutxi eman didazu azken
ogei urte auetan.

MIKELE: Aitona biurtzen danean, zentzua etorriko zaio
ta guziok orduantxe biziko gaituzu zoriontsu...
(aita ta ama besarkatuaz).

ELOY: Zuri ta beltzak Bergaran eman zuten besarkada
dirudi onek... Gora pakea! Eta iraun dezala!

JOXE MARI: Garai onean sartu naiz etxe ontan, nun-
bait...

ELOY: Esan zazu zeorrek ekarri dezula aldi ona.

JULI: Ala da, bai. Begi ona izan dezu... Mikele aukera-
tzen... A zer nolako neskatxa!

MIKELE: Ta nik ez?... donostiar kaxkarin bat aldarera
eramaten...

JULI: Bikote bikaña egiten dezute. Oso elkarren modukoak.

JOXE MARI: Ori gero ikusi bear, zer nolako beinkapena ematen diguten.

ELOY: (*Aita ta Estanisi*) Aita-semeak entzun dezute: ezta yak datorren illaren 12an... Apustua, ankaz gora dijoala!

MIGEL MARI: Pakearengatik amore emango bear ko diagu, seme. Oa korrikalariari ezetzkoa esatea. Or dek nunbait... Arantxarekin.

ESTANIS: Entrenamentuetan asiak giñan eta... (*musin*) Garbi dago etxe ontan emakumezkoak agintzen dutela.

ANABIXENTA: (*piztuaz*) Gizonezkoak zentzurik ez dezutenean bai. Ai seme, semee! Ipurtarin ta... burua berdin...

MIKELE: (*pakezale*) Tira eztabaidak amaitu dira. Guk prestakizunak egiñak ditugu: elizakoak, erriko-etxeko paperak gertu dauzkagu, arropa, bizileku ta gañerako arazoak.

ANABIXENTA: Aideai ere adierazi bear zaie komidatuaz. Gero bazkaria nun eta nola. Amaika diru txautu bearra... erretratista ta abar.

JOXE MARI: Ez ortaz kezkek izan ama, ori nere bizkar...

MIGEL MARI: Txatarrak ematen du orratiokan. (*Estanisek isil arazten du*).

ELOY: Korrika-apustuak baño geiago bai noski...

MIKELE: Aste bi gelditzen zaizkigu aurretik eta gauzak ondo antolatzeko astia badegu.

ANABIXENTA: Ezin sinestatu det. Ain aguro dator guzia...

JULI: Eta orain palta zirenak azaltzen zaizkigu: Pantxo eta Nikolas. (*Emakumezkoak poz axanpak egin, bitzate*).

ESTANIS: (*Aitari*) Martin gure «potoka» (motxala) zai egongo zait eta zer gertatzen dan esatera nijoakio. (*Bijoa*). *Sprint* batean.

MIGEL MARI: Obe dek korrika-txikian.

XIV. AGERRALDIA

ESTANIS EZ GAÑERAKO GUZIAK ETA
PANTXO TA NIKOLAS

NIKOLAS: (*Alaikiro agerturik*) Arratsalde on! Billera al degu, etxeko guziok osatu zerate.

JULI: Eta ez geranok ere bai. Zuek palta ziñaten.

PANTXO: Danak bilduta arkitzeak asko poztutzen nau.
Orrela guziori batean emango dizuet berria. (*Iru emakumezkoak jakin naiez*).

MIKELE: Zer da bada?...

JULI: Beste berri onen bat al degu?...

ANABIXENTA: Esan! Esan

PANTXO: Ez txar eta ez on!

NIKOLAS: Asmatu, asmatu!

JULI: Nik beintzat ez! Ez dakit zer izan ditekene.

ANABIXENTA eta MIKELE: (*Elkarri begiraturik*) Ez guk ere!

PANTXO: Luzatzen ibilli gabe... zera, Ameriketara noala!

JULI, MIKELE eta ANABIXENTA: (*era batean*) E? Ez da egia izango?... Ameriketara? Noiz ordea?...

MIGEL MARI: Anai! Ez daukazu ibiltzeko gogo txarrik!

PANTXO: Gogoa... gogo aundirik ez! Baiñan ango arazoak artara beartzen naute. Oraintxe telefonoz Buenos Airesko nere administradorearekin itzegitea egin det...

ANABIXENTA: Ori da aurrerapena Ameriketatik mintzatu eta emen entzutea...

PANTXO: Zuri bezelaxe. Berri txarrak aguro irixten zaizkigu eta ots egin dit lenbaitlen joateko ango

ondasunak galdu naiez baditut. (*Emakumezkoak min ta naigabea agertu bezate, itzez eta itxuraz*)

MIGEL MARI: Mundu ontan apusturik gabe ere dirua galdu ditekela ikusia dago...

ELOY: Ixilik zaude aita... Ez ankik sartu...

ANABIXENTA: (*kupiturik*) Ez zera bereala joango Pantxo? Ez gaituzu ain itsumustuan utziko...

PANTXO: Txartela eskatua det.

NIKOLAS: Abionean gañera...

ANABIXENTA: Jesus milla bider! Aidez? Ori da arriskoa!

MIGEL MARI: Bai! Apustuan baño geiago. Itzai izana naiz eta naiago det idiak pausua egiten duan lekuan ibilli...

ELOY: (*besotik elduta*) Esti! Aita! Or ari zera akulluaz ziri ta ziri. Ezin zure griña aaztu...

ANABIXENTA: Obea zan bada aztutzekoa...

NIKOLAS: Gure amerikanoa berriz Arjentinara doala. Ezin oituko gera orrenbeste urtetan elkarrekin bizi izan ta gero...

PANTXO: Zer da ba gaur Ameriketara joatea? Gau bateko loa! Ango arazoak antolatu bezin aguro itzultzeko asmoa det.

ANABIXENTA: Ala da baiñan... Ez genuen asko uste...

JULI: Onik egin zazula beinik bein joan etorria...

NIKOLAS: Gaur aidez, itxasoz baño segurugo ta laisterago egiten dira biadaiak. Errezago.

JULI: Gu bezelakoak, orratiokan, beti toki batean egoteko jaioak gaituzu...

NIKOLAS: Bai, ni ere alakoa naiz: etxezur... kaiola txoria. Jarri ta bertan goxo naiz eta atea zabalik egon... *(Juli ta biak mintzatzen darraite)*.

MIKELE: *(Joxe Marikin jardun berezian ari izan da orain arte. Bat batean osabarengana urbilduaz)* Osaba! Zuk berri bat eman diguzu, eta adierazi bear dizut bestea... Joxe Mari *(aurkeztuaz)* ta biok ezkontzen gerala datorren illaren 12n...

PANTXO: *(Ezkongaiei esku emanaz)* Asko poztutzen naiz... Ondo ixilik ibilli zerate...

MIKELE: Korapillo guziak azkatu arte ez degu adierazi nai izan. Lotsa pizka bat ere ematen zidan zuregana agertzeak.

PANTXO: Zergatik lotsa? Ezkontzeko sasoi onean zaude ta ongi egiten dezu zure aukerako senarra artzea...

JOXE MARI: Datorren illaren 12n ezkontzea erabaki degu.

MIKELE: Emen izango zerala uste degu osaba, ta ezta-
yetan laguntzaille ta testigu izango zaitugula.

PANTXO: Baldin baite! Ez litzake besterik palta! Leku-
ko izango nazute bai ta bidaia atzera izan bear
banuke ere! (*jardunean jarraituz*).

NIKOLAS: (*Anabixentari*) Beraz, eztaiak ditugula e?
Etxekoandre?

ANABIXENTA: Ala diote!...

JULI: Eta ala izango da Jainkoaren laguntzaz. Au Ana-
bixenta au! Egun zoriontsua guzientzat.

MIKELE: Gure ezkontzara, emen zaudeten guziok etor-
tzea nai genuke.

PANTXO: Eztaiak eta nere Amerikarako joatea, azken
agurra, batean egingo ditugu.

MIGEL MARI: Pestak, batera baño bitan egitea obe iza-
ten da.

ANABIXENTA: Naigo nuke paseak baleude. Gure gizo-
nak pestarako beti gertu. Neri berriz trixtura
ematen didate.

NIKOLAS: Guk, biotza gazteago gordetzen degula
esan nai du orrek.

ANABIXENTA: Gazteago... edo gogorragoa...

PANTXO: Nola nai ere, dabillega urte askotan. Eta
emen gauden guziok onik bildu gaitzela berriz

ere etxe ontan, pake ederrean. (*Anabixenta itzegiten ezin asmaturik malkoa dario, eta Mikele ta Julik besarkatzen dute. Gizonezkoak kutsaturik elkarren artean esku-estutzea, bizkarreko ta diosal egiten diote Pantxori*).

MIGEL MARI: Paskoazkok egin berri ditugula dirudi. Onelako biotz lasatasunik ez nuen aspaldiko urtetan nabaitu. Ez da apustua irabazi banu ere.

ELOY: Beti galtzen oitua bait zaude. Latztu egiten da gizona.

PANTXO: Ez kontu zarrrik berritu, Eloy (*Aginduaz*) Ni Amerikan izango naizen bitartean zure gain gelditzen dira emengo nere diru arazo ta artu-emanak. Zu kontu-artzaille.

ELOY: Ondo dago osaba. Itzulitakoan zurituko ditugu guziak.

PANTXO: Mikeleri ez diot ezer esan bearrik. Ezkondutakoan baduke nori obeitu. Senarradunak jabea du. Biontzat oroigarritzat esku-erakutsi bat nere izenean Eloyk emango dizute.

MIKELE: Eskerrikasko osaba! Beti eskuzabal.

JOXE MARI: Nik beste orrenbeste esan bear esker txarrekoa ez izateagatik.

MIGEL MARI: Anai! Testamentua egiten ez ziñan bada asiko...

ANABIXENTA: Sasoi ederrean ez bazaude bada oraindik...

NIKOLAS: Ez da itxoin bear il urrean egon arte testamentua egiteko...

PANTXO: Jakiña bada! Etxetik kanpora aldi baterako irtendakoan, gauzak garbi utzi bear dira.

ELOY: Ementxe ditugu palta diranak.. Etxea bete lagun degu gaur...

AZKEN AGERRALDIA

LENGOAK ETA ARANTXA,
ESTANIS ETA MARTIN SARTURIK

ESTANIS: Zozo-mikotea kabian eskuratu det. Emen dituzute. Eskerrak korrikalaria ez zala bere lanean asi.

MARTIN: Zuen zai bait nengon leiaketan abitzeko; bitartean Arantxarekin jardunean.

ARANTXA: Eta ain zuzen, Estanis billa etorri zaigunean, ari nintzaion esaten ez diodala apusturik egiten utziko.

ANABIXENTA: Ederki esana!

MIGEL MARI: (*Estanisi*) Guziok gure kontra ditugu.

PANTXO: Nik gazteoi aolku bat eman nai dizuet. Ameriketara noa, ta bazterrak ikusi ta lurraldeak korritzeko tirriatuak bazaudete, zatozte nerekin. Arjentinan badezute nun jokatu... eta nun lan egin dirua irabaziaz. Tira, Estanis, aziendak zaitu nai badituzu egun guzian zaldi gañean aize ta eguzkitan egurastuaz, an dezu aukera.

ESTANIS: Bada, bizimodu on atsegin izango litzaidake, uste ez badezu ere... Panpa zear ibiltzea...

ARANTXA: Martin ere (*senargaia signalatuaz*) joango litzake ta andik berri onak bidaliko balizkit eta etorkizuna itxurazkoa ikusi, ni ere joango nintzake.

ANABIXENTA: Era ortan etxea aguro ustuko zaigu.

PANTXO: Ez, txoro-txoro ez da erritik kanpora joan bear. Arretaz ta ongi neurtuaz erabakiak.

NIKOLAS: Nik beintzat «sekretario» jarraitu bearko det bizi guzian. Emengo erriko-etxean usteltzen.

PANTXO: Ain aspertuta al zaude bada. Bakarrik bizi zera, egia da. Zuk egin bear zenukena da... ezkondu (*Juliri begiratuaz*). Or dezu zuretzat andre egokiena... (*Ustegabeko aterakaiak algarra ta istillu bizia sortu du. Emakumezkoak batik bat pozkarioz betetzen ditu*).

ANABIXENTA: Orixe da egia! Bai enetxoa. Olakorik! Juli! Zuk atera bear dituzu eltzetik babak! (*besarkaturik*).

MIKELE: Zerbait izango da osabak dionean!

ARANTXA: Ustegabeko aterkaia. Zinean ez ezen bizi-tzan ere gerta oi dira ta.

JULI: (*Lotsa-lotsa egin da*) Isilik zaudete. Au lotsa! Pantxoren jolas bidea.

NIKOLAS: Txautxetan ala benetan ordago bota digu beintzat.

MIGEL MARI: Nikolas, ni jokalaria nazu apustuan ez ezen musean ere, ta ez daukazu ezetzik esaterik...

PANTXO: Beingoan nere anaiak arrazoi du. Ezkontza batek bestea dakar. Ta Nikolas, zuk ondo daki-zunez, bizia jokua da ta eskura etortzen danean jokatu egin bear da.

NIKOLAS: Jokua ez da ordea errenta... Migel Mari Obea da ollaskoa erreta.

AZKENA